



JOKO-ZELAIAREN ERDIAN

Lehen Mailan zazpi urtean aritua, emakumea eta futbola izan ditu hizpide Eguzkiñe Peñak 'Sanagustingo elkarrizketak' zikloaren barnean 20



ENTZUMENA ZAINTEAK
gentzu asko dauka

ENTZUMEN AZTERKETA + BALORAZIO TXOSTENA

ERABAT DOAN

ETA DESKONTU BEREZIAK AUDIFONOETAN*

* Geldetu baldintzak zure hurbileneko Gaes zentzuan.



GAES
Entzumen Zentroak

Foruen Ibilbidea, 8
Tel.: 943 15 03 95
AZPEITIA

www.gaes.es



eguneroko informazioa sarean



ALDIZKARIA

UZTARRIA.EUS

ZOZKETAK,

BESTELAKO PRODUKTUAK

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

urtean 30 euro
ordainduta

943 15 03 58

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarrria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 1xx.a (2017ko hilabetea)
Urtea. XVIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
 uztarrria@uztarrria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. A. Agirrezabala
Webgunea.
www.uztarrria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

||| 2017KO AZAROKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



iritzia
Inkesta. Zer iritzi duzu Kirol Patronatuaren tarifen inguruan? **13**

mamia
Elkarrizketa. Josean Idoeta Atzegiko lehendakaria da 2006tik **04**
Klik! 'Pasaiako badia' dokumentala egin eta estreinatu dute hiru azpeitiarrek **16**
Euskararen erabilera. Ondarroa, Bermeo eta Azpeitia, hizpide **24**

jakiteko
250 pezetako bihurrikeria. Bat baino gehiago dira kalabozotik igaro diren herritarrek **34**

Ba al dakizu datorren sansebastianen eta karnabalen arteko bi igandeetan ere sokamuturra izango dela herrian? Uztarrria

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariatz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

JOSEAN IDOETA

Atzegiko lehendakaria

“Ni jada ez naiz Josean, orain Anderren aita naiz”

Semearen jaiotza tarteko, bizimodua beste era batera planteatu behar izan badu ere, gogoz eta adorez bizi du hain “aberatsa” zaion egunerokoa. 📝👁️ Elena Margüello

Duela hogeit bat urte, Ander semea jaio zenean, hasi zen Josean Idoeta Atzegiko batzarretan parte hartzen. 2006an, Gipuzkoako adimen urriko pertsonen elkarteko presidentetzaren izendatu zuten.

Ia 60 urte dira Atzegi sortu zutela. Zertarako sortu zen elkartea?

Atzegi 1960. urtean sortu zen Gipuzkoako adimen urriko pertsonen alde lan egiteko. Guraso batzuek sortu zuten elkartea beren seme-alaben beharrei erantzuteko, horiek gizarteratzeko. Gerora, profesionalak hasi ziren elkartearen lanean, eta gaur egungo egoerara iritsi da Atzegi. Pausoak eman ditugu, baina sentsibilizazio lanak bere denbora eskatzen du eta

kausa-ondorioa lortzea ez da batera erraza izaten.

Gaur inklusioaz hitz egiten da, baina, sasoi batean, adimen urriko pertsonak ezkutatatu eta alboratu egiten zitezuten.

Hasiera batean, alboratu eta ezkutatatu ez ezik, akabatu ere egiten zituzten. Orain dela urte asko, neska izateagatik ere hiltzen zituzten haurrak kultura batzuetan. Nik ez dut horrelakorik bizi izan, baina adimen urriko seme-alaba bat izateak lotsa eta beldurra eman izan du, eta gure kasuan, gurasoen lagunak askotan geratu izan ohi dira guri zer esan ez zekitelako. Dena den, jada gauza horiek gaitzuten direla uste dut; are gehiago, Gipuzkoako gizartean oraindik eta hel-

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1961eko urriaren 2a.

|||**Herria.** Eibar. |||**Bizi tokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Enplegu zentro bereziko gerentea.

dutasun handiagoa ikusten dut. Laguntzeko eskaeraren bat egiten bada, jendea beti agertzen da prest.

Pausoak eman dira, baina aurrera begira, zer helburu ditu Atzegik?

Adimen urriko pertsonak erabat gizarteratzea. Gure seme-alabek egunerokoa lortzen dituzten gauzak ametsak dira guretzat, eta oraindik ere ustekabe harrapatzen gaituzte hainbatetan; izan ere, guk askotan pentsatzen duguzen gauza ezin dituztela egin. Gauzak horrela, bi urritasun mota

bereiz daitezke: pertsonak berak duena eta gizarteak ezartzen diona. Azken hori ez da beraien urritasuna, gizartearena baizik. Hori dela eta, oraindik bide bat dago egiteko. Jendeak adimen urriko pertsonen aukerak eman behar dizkie beraien gaitasunak erakutsi ditzaten.

Orain arte egindako bidean, zer oztopo aurkitu dituzue?

Gizarteak jartzen dituen mugak dira oztopo handienak. Beti pentsatzen dugu pertsona horiek gaitzuten diren, baina hori guk jarritako muga bat da. Duela urte batzuk, ez ziren ikastolara ere joaten, eta horrela, gaitasunak nekez lor zitezaketen. Ikasteko, lanean jarduteko eta gizartean parte hartzeko aukera eman diegunean, gizarte-



ko zati oso garrantzitsu bilakatu direla ikusi dugu, geroz eta indar gehiago hartzen ari dira.

Aurtengo kanpainaren leloa Atzegi Xperience da. Zer lortu nahi duzue?

Ahalik eta jende gehienak ulertzea nahi dugu adimen urriko pertsonak gauzak egiteko gai direla. Aurtengo kanpaina prestatzerakoan, jende asko laguntzeko prest dagoela baina nola egin ez dakiela konturatu gara. *Atzegi Xperience*-ekin hori eskaini nahi diegu herrita-

rrei; helburua elkarrekin egotea izanik, herritarrei hainbat espazio jarri dizkiegu ongien egokitzen zaiena aukera dezaten. Normaltasun egoera batean sartu nahi dugu. Adin guztietako pertsonen ematen diegu Atzegein parte hartzeko aukera, erabateko integrazioa egon dadin, denok elkarrengandik ikas dezagun eta elkar lagundu ahal izateko.

Helburu horiek lortzeko bidean zoazte?

Bai, bide onetik goaz. Emaizta

onak ikusten ari gara. *Atzegizale* kanpaina hasi genuenetik, 10.000 *atzegizale* baino gehiago gara ofizialki. Gipuzkoa *atzegizale* batean bizi gara; gehienok sentsibilizatu gaude.

Zer da atzegizale izatea?

Atzegizale izateak adimen urritasuna duen pertsona bati mugak ez jartzea esan nahi du, eta pertsona horiek arrarotzat ez hartzea ere bai. Desberdin ikustea ondo iruditzen zait, pertsona guztiak baikara desberdinak; hori abera-

tsa da. Pauso horiek ematen dituen pertsona oro da *atzegizale*.

Gizartea, oro har, integrazioarekin kontzientziatuta dago?

Geroz eta indar eta zentzu gehiago du gizarteak. Errealitatea da gertatzen ari dena. Profesionalak adimen urritasuna duten pertsonentzat aukera berriak bilatzen ari dira, eta utopia errealitate bihurtzen ari dira. *Pauso berriak* bezalako programak martxan dira, eta Beasaingo eta Eibarko udalak, adibidez, adimen urritasuna duten pertsonak kontratatzen ere hasi dira. Gizartearen erantzuna ona da, mugak apurtzen ari dira, eta, orokorrean, lan egiten ari gara inklusioa eta normalizazioa lortzeko. Hori da bidea, gaitasunak ikustea ezgaitasunak ikusi beharrean.

Nolakoa da Azpeitia integratioari dagokionez?

Oso ona, bai arlo publikoan eta bai pribatuan. Ez dut behin ere egoera txarrik ikusi, laguntza besterik ez dut jaso. Gure seme Ander lasai ibiltzen da kalean, eta gu lasai gaude integratzerako inguru lagungarria duelako; izan ere, bestela, ez litzateke hain erraza izango egun egiten duena egitea. Ingurua lagungarria izatea oso garrantzitsua da, beraiei gizarteratzeko izugarritzko laguntza ematen baitie horrelako ingurua izateak.

Zer da Atzegi adimen urriko pertsonentzat?

Sarritan, harrituta gelditzen gara beraien esanak entzunda. Beraiengatik egiten den guztia tarteko, Atzegiri eskerrak eman beharrean daudela esaten dute. Atzegeiren bidez egin dituzten lagunei ere askotan eskaintzen dizkiete esker hitzak.

Zer ematen du bueltan Atzegi boluntario izateak?

Nik enplegu zentro berezi batean egiten dut lan, eta pertsona barentzat lana bilatzen dudanean gustura sentitzen naiz. Boluntario izateak lasaitasun sentimendua sortzen dit. Ez dakit zer sentiarazten diodan laguntza eskaini dio-

danari, baina nik zerbait baliogarrria egin dudala sentitzen dut. Atzegiren kasuan, gauza bera gertatzen da. Hasiera batean, laguntzeko egiten da boluntario lana, baina bueltan pertsona horien-gandik jasotzen den erantzunak eta esker onak harrapatu egiten zaitu.

Eta zer da Atzegi familientzat?

Izugarrizko laguntza bizitzako arlo guztietan. Adimen urritasuna duen pertsona bat jaiotzen denean, izugarrizko zalantzak sortzen dira. Zalantzarik gogorrenak eta gehien irauten dutenak "zer gertatuko da ni ez nagoenean?" eta "zer bizimodu izango du adimen urritasuna izanda?" izan ohi dira. Galdera horiei aurre egiteko oso baliogarrria da Atzegi. Hasieran, harrera egiten zaie familiei, eta beste guraso batzuekin elkartzen dira. Horrek asko laguntzen du etorkizuna argiago ikusten. Gero, adimen urritasuna duen pertsonaren bizitzako etapa guztiak jorratzen dira, pixkanaka. Zentzu horretan, asko errazten du bidea Atzegik. Gainera, elkarte bat izanik, gizartean duen pisua nabaria da, eta sentibilizazioa eta normalizazioa ahalbidetzen laguntzen du.

Nola bizitzen da adimen urritasuna duen pertsona bat familian izatea?

Beti da gogorra horrelako albiste bat jasotzea, baina orain dela 50



'Atzegi Xperience' kanpainaren aurkezpeneko irudia. |||Maialen Etxaniz

urte gogorragoa izango zen. Behin ere ez duzu pentsatzen adimen urritasuna duen seme bat izango duzula, eta albisteak eske-ma guztiak hausten dizkizu. Hala ere, gaur egun ez da lehen bezain gogorra adimen urritasuna duen seme edo alaba bat izatea. Anderrrek, gure semeak, 20 urte ditu, eta garai hartako gurasoak ikusi edo oraingoak ikusi, alde dago. Lehen horrelako seme-alaba bat jaiotzen zen, eta... Orain, ordea, jendeak zoriandu egiten zaitu adimen urritasuna duen haur bat izateagatik, kalean ez dizute arraro begiratzen, eta beste modu batean hartzen duzu. Hori gizarte osoaren aldatetari esker lortzen da. Oraindik ere egin behar dira aldatetak, baina orain arte lortu dena sekulakoa da.

Zer esango zenieke semeak edo alabak adimen urritasuna duela jakin berri duten familiei?

Izugarrizko aldaketa datorrela. Nik izugarrizko aberastasuna sentitzen dut, eta ez nuke egoera hau aldatuko. Bizimodua beste modu batera planteatu dut arlo guztietan: pertsonalki, lanean, gizartean... Hasieran, sekulako nahigabea sentitzen bada ere, denbora pasatu eta gero, zure buruari galdetzen diozu zergatik hartu zenuen horrela albiste; nahiago nuke beste modu batera hartu izan banu. Semea jaiotzen zenean izena galdu nuen: ni jada ez naiz Josean, orain Anderren aita naiz. Lagun pila bat egin ditugu Anderri esker, bizimodua aldatu digu Anderren jaiotzak, baina hobera.

“seme-alabek lortzen dituzten gauzak ametsak dira guretzat”

“gizarteak jartzen dituen mugak dira oztopo handienak”

Anderren aita eta Atzegiko lehendakaria. Nolako izan da Atzeagin egin duzun ibilbidea?

Ander jaiotzen zenean bideratu gintuzten Atzegira, eta ohartzera, Azpeitiko batzordean sartuta nengoan. Handik Donostiakora egin nuen salto, eta garai hartan presidente zenari laguntzen hasi nintzen, laguntza behar zuela esan baitzidan. 2006ko irailean, Jose Luis Zaldúa garai hartako Atzegiko lehendakaria hil zen, eta ordu-tik aurrera naiz Atzegiko presidentea.

Zein da zure egitekoa?

Zuzendaritza Batzordeko ordezkaria naiz. Taldean dauden profesionalei bultzada ematea eta horiei egiten duten lana eskertzea dira nire egitekoetako batzuk. Batez ere, ordezkaritza lanetan aritzen naiz.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?

Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Aberastu poligonoa, 2
Tel. 943 335 016
Zarautz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 143 443
Zumaiá

San Juan, 15 edif. AXIII
Tel. 943 852 110
Askotia

Geotzaga Kalea, 18
Tel. 943 348 241
Zestoa

Gauzek hitz egingo balute

Eta norik esan du ba ez dutenik hitz egiten? Gauzek –entzun ondo hau– hitz egiten dute, eta asko. Gauza txikienetatik hasi eta eta eraikin handienara, den-denek hitz egiten dute.

Gauzen kasuan ere, ordea, tamainak ez du zer ikusirik kontatzen dutenarekin. Gauza txiki batek, eskutitz batek esaterako, marraztutako hitzez jantzitako paper zati bat izanagatik, gauza asko esan eta adierazten ditu. Ez al da hala? Edo argazki batek, marraztutako hitzik ez izan arren, izoztutako begiradak edo argiak ditu, eta horiek berezibiziko eragina dute gure tripetan. Usaina ere, hitzik ez duen beste “gauza” bat da, baina denboran barrena bidaiatu eta pertsona jakin baten leporaino eramateko ahalmena du. Edo abesti “hura” edo hau edo bestea...

Bakoitza bat eta bakarra garela jakin bada-kigu. Eta halakoa edo bestelakoa bagara, hein handi batean behintzat, gauza mordo horien-gatik dela uste dut nik. Gauza horiei diegun atxikimendua guk uste duguna baino handiagoa dela esatera ere ausartzen naiz gainera.

Gure bizitzan txoko asko ezagutu arren, pertsona askorekin topo egin arren, usain exotiko eta urrutikoak usaindu arren, mota askotako musika entzun arren... oinarri-oinarrian, uste dut gure sorterriarekin eta gertukoenekin dugula lotura, materia, beharra.

Mezua, eskura

Oso gaztetatik izan ditut gustuko bigarren eskuko dendak, azokak eta halakoak, eta mila eta bi istorio asmatu izan dit eskuratutako berokiaren barruan zinemarako sarrera zimurtu bat topatu izan dudanean!

Gaur, gustuko dudak gazetari baten hausnarketak eman dit azaroko idatzi honetarako oina. Kafesnea eta ogi xigortua zabalik nuen ahora begira nituela gertatu da, zera esan du gazetariak maite-maitea dudak irratitik: “Ez dakit zenbatgarren edukiontzi bat jarri beharko lukete dena delakoagatik atxikimendua die-



||||| **olatz aguado** |||||


||| Elkar-ekinera eramaten ditugun bigarren eskuko gauza maiteei zergatik ez diegu hitza ematen?

gun gauza horiek duintasunez bertan uzteko”.

“Ba bai, arrazoi!”, pentsatu dut. Azpeitian badugu toki bat gauza horietako batzuei bigarren aukera bat, bizi bat edo erabilera bat eskaintzeko; gauza horietaz duintasunez agurtzeko, sendatzeko, eta, nahi edo ahal bada, horiez ahazteko. Eta zergaitik ez, ahal bada gainera sos batzuk lortu eta gauzak erosten jarraitzeko! Hau paradoxa!

Eta hemendik txalotu nahi ditut bigarren edo auskalo zenbatgarren eskuko gauzak jasotzen dituztenak. Eta baita mostradore atzean adeitsu harreta eskaintzen duen pertsona bakoitza ere; izan ere, gure gauzak txukun eta apain ipintzen dituzte, merezi duten duintasuna ematen diete. Bejondeizuela, eta eskerrik asko bihotzez!

Iradokizun bat bururatu zait bat-batean –halakoxea naiz ni–: Elkar-ekinera eramaten ditugun bigarren eskuko gauza maiteei zergaitik ez diegu hitza ematen, zer nolako esanahia zuten azalduz, nondik ekarria den edo hura eskuratzean zerk maitemindu gintuen esanez. Gutunazal batean sartu, eta hortxe, ezkutuan baina eskura utziko dugu mezua; altzariaren kaxoian, panpinaren txapelean edo berokiaren patrikan.*



Euskallowen

Onartzen dut. Oilo-ipurdia jartzen zitzaidan orain dela gutxira arte urriaren amaiera heltzean. Ikastolako agendan-eta apuntatzen nituen Arimen Gaua bezala ere ezaguna zaigun gau horretarako falta ziren egunak, eta 90. hamarkadaren amaierako beldurrezko film klasikoaren maratoi klandestinoak egiten nituen ilobekin, etxean. Kartoizko kutxekin eta errotulagailuekin zabarki marraztutako *Ouija* inprobisatuak eta izpirituekin hitz egiteko saiakerak egiten genituen kuadrillan. Kanposanturako txangoak ere egiten genituen, naturaz gaindiko zerbait gertatuko zen esperantzarekin. Hori guztia eta askoz gehiago.

Urtero entzun behar izaten nuen zein *yankee*a nintzen Halloween ospatzeagatik. Ez dizuet ukatuko nire beldurrezko filmen gaidosiak eta AEBko kultur-industria hegemonikoak nigan eraginik izan ez dutenik, baina Santo Tomas egunean taloa txorizoarekin jaten bezainbeste disfrutatzen nuen Arimen Gaueko film maratoiekin.

2013. urtea izan zen ordura arte "atzerriko festak" ospatzearen presio sozial hori zentzua galtzen ikusi nuen urtea. *Argia* komunikabidearen webgunean *Halloween, euskal festa?* izenburua zuen erreportaje batekin egin nuen topo, eta ordutik, data hori heltzean, urtero ikusten dut erreportajea.

Halloween, euskal festa?

Ikerlari askoren iritiz, jatorri zelta du Arimen Gauak, eta badirudi jatorri paganoa izan zezakeela, ondoren kristau bihurtua. Kontuak kontu, egun hau munduko txoko askotan ospatu izan da historian zehar. *All Hallows' eve* edo Santu Guztien bezpera dei geniezaioke, baina nork daki gure arbasoek nola deitzen zioten.

Euskal Herriko hainbat txokotako jende helduari eginiko elkarrizketak ziren erreportajearen muina; tartean, inguruko jendea. Horiek kontatzen zuten Arimen Gauean nolaz



|||||||anartz izagirre||||

|||Ez nator Halloween euskal festa dela aldarrikatzera. Ez orain ezagutzen dugun festa hau, behinik behin

nola husten zituzten kalabazak, kandelak barruan sartu eta jendea izutzeko. Batek zioen, Halloween gisan ezagutzen dugun festa horretako hainbat ohitura oso ohikoak zirela gure inguruan ere.

Funtsean, iruditzen zait tradizioen kontu guzti hau nahikoa anbigua dela gurean. Atzerriko festez eta ospakizunez hitz egiten ari garenean, zertaz ari gara hizketan? Zalantza daukat Konstituzio eguneko zubia edo Hispanitate eguna ez ote diren onargarriago bihurtu hemen batzuentzat, gutako askok horiek ospatzeko inolako arrazoirik eta beharrik ez dugun arren.

Ez nator Halloween euskal festa dela aldarrikatzera. Ez orain ezagutzen dugun festa hau, behinik behin. Hala ere, ez didazue ukatuko zezenketak eta ezagutzen ez ditugun santuen egunak tradizio diren herri honetan, Euskalloween ospatzeko eskubiderik eta arrazoirik ez dugunik. Egoera beldurgarriegia da, motiborik ez izateko.*



Haize berriak, alabaren eskutik

Duela 34 urte zabaldu zuen Ixiar Sanjuanez izen bereko ile-apaindegia Azpeitian. Emakume nahiz gizon, haur zein heldu, hainbat azpeitiarri moztu, txukundu, koloreztatu edo moldatu diote biloa ile-apaindegi horretan. Hainbeste urteko ibiliaren ostean, baina, iritsi zaie be-launaldi erreleboarekin hasteko ordua: Ixiarren alaba Lucia Aizpuru (Azpeitia, 1994) amarekin hasi berri da lanean.

Luciak badu eskarmentua ile-apainketaren eta makillajearen munduan. Izan ere, Donostian hainbat ikasketa eta trebakuntza ikastaro egin ostean, Gipuzkoako hiri horretan nahiz Orion jardun du lanean azken lau urte pasatxoan. "Aldaketarako garaia"



Ixiar San Juan eta Lucia Aizpuru ile-apaindegia atarian. III

dela iritzita, ordea, "etxera" itzuli da Lucia, eta ile-apaindegian hainbat berrikuntza txertatzea du helburu: "Gaztea naiz, baina badut esperientzia. Ez naiz hutsetik hasi amaren ile-apaindegian lanean, eta orain arteko es-

kaintzari hainbat berrikuntza erantsi nahi diot".

Badu nortasunik gazteak, eta hori da Ixiar Sanjuan ile-apaindegiari eman nahi dion balio erantsia. "Makillajea, ile-mozketa modernoak, kolorazio des-

berdinak... Gazteekin lan egiteko prestatuta nago, eta hori da jorratu nahi dudana bidea".

Amarekin hasi du ibilbide berria alabak, txiki-txikitatik ile-apaintzaileen eta ile-apaindegien mundua ezagutarazi dion personarekin. Hala dio, Ixiarrek: "Lucia sehaskako ile-apaintzailea da, nolabait esateko. Haurra zenetik asko ikusi eta ikasi du, eta orain gauza berriak ikasteko bidean ari da lanean. Izan ere, bere bidea egin behar du, ez gure lan bera".

Etxeko erreleboa, beraz, badute Ixiar Sanjuan ile-apaindegian, eta Luciare gogorik ez zaio falta bide berria urratzen jarraitzeko.

I.S

IXIAR SANJUAN

Helbidea: Loiolako Inazio Hiribidea 19, behea.
Telefonoa: 943-81 02 17.

**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
2017**


zozketan parte hartzeko
bidali izen-abizenak
eta kontaktu zenbakia
zozketakuztarria@gmail.com

Uztarriaren bazkideentzat
**FINALERAKO BI
SARREREN ZOZKETA**

...eta uztarria.eus-en BERTSOPORRA - Animatu parte hartzera!

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Ikasleak plazaren erdigunera

Udal Euskaltegiak bere Curriculum garatu du, eta aurten hasiko dira eskoletan metodologia berria lantzen. Ikasleei egoera errealak eta zehatzak jarri eta hainbat baliabide eskainiko dizkiete.  Uztarrria

HABEren eskaerari entzuteko, bere Curriculum garatu du Azpeitiko Udal Euskaltegiak. Hasi berri den ikasturtean jarriko dute martxan Curriculum, eta hori dela-eta, metodologia berria erabiliko dute eskoletan. Aldaketa hori tarteko, ikasleak izango dira euskaltegiko protagonista. “Ikasleak dira ikasketa prozesuaren jabe, eta, ahalegin horretan, gramatikatik ekintzetara egingo dugu salto. Ikasleei egoera eta ekintza errealak eta zehatzak azalduko dizkiegu, eta horiei aurre egiteko baliabideak eta tresnak eskaini”, azaldu du Olatz Zabaleta euskaltegiko langile eta Curriculum garatu duen lantaldeko kidea.


Inge Beloki irakaslea ere Curriculum osatzen aritua da, eta hark esan duenez, “estrategiak eta ebaluazioak” izango dute garrantzia. “Ikaslea erdigunean jarriko

dugu, eta bakoitzak egingo du ikasteko moduz hausnarketa. Ikasleen eta irakasleen etengabeko elkarriketaren bidez, ikasleek ikaste prozesuan aurrera egin dezaten nahi dugu”.

Gaur-gaurkoz, idatzita dute Curriculum, eta, orain, unitate didaktikoak egingo dituzte metodologia berria martxan jarri ahal izateko.

Josu Labaka Udaleko Euskara batzordeburuarentzat Azpeitia udalerrri “berezia” da hizkuntzaren ikuspegiari erreparatuz gero. Horregatik, euskaltegia “tresna estrategikoa” dela esan du. Haren aburuz, herritar guztien eskubidea izan behar du euskara ikasteak, eta, horregatik, gogorarazi du euskaltegiko zerbitzuak doan eskaintzen dituztela udalak martxan duen beka sistemari esker.✳



Josu Labaka Azpeitiko Udaleko Euskara batzordeburua eta udal euskaltegiko langileak.  Ane Olaizola



Beñat Lizaso.

ESANA DAGO

“Gauzak ez badira asko aldatzen, oraingoa izango da nire azken txapelketa”

BEÑAT LIZASO
bertsolaria

“Uste nuen baina errazago moldatu naiz kirol teknifikazio zentroko bizimodura”

“Hasieran ez nintzela joango esaten nuen, baina ez naiz damutzen kirol zentroaren eskaintzari baietz esan izanaz”

NEREA BERASATEGI
triatleta

IKA Instalakuntza Elektrikoak
argi lanak s.l.
Urtar: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ika@argilanak.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
alertzaautook@telefonos.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Derbia


Pitxon eta Braulio Garmendipen ezagutu zituen ez da gaur goizekoa. Ba nik ezagutu egin nituen; bata eta bestea, biak. Ume nintzela, gero lagun izango nintuen gizon asko ezagutu nuen *Lagunen* etxean. Lucas izan zen nire aurreneko idoloa eta Atxuia nire jainkoa. Enrike, Santi, Atxuia, Uantxo, Pako, Tximist, Odriozola, Pipillo, Donoxi, Ttando, Luxio... nire *#dimitiña*. Herrero, nire Guardiola. Udan horiek entrenatzen ari zirela Garmendipeko zelaia zapaldu eta baloiari ostikoka aritzea laino gainean saltoka aritzearen pareko.

Umearen neurriak ondo kalibratu gabe ego-

ten dira. Eta nire zeruan bazen deabrua. Deabru gorria. Gorri-gorrixek ziren gure aurkariak. Aitortu beharra daukat deabruen lagun ere egin nintzela. Noski, gure Joxemaik kamixeta gorria jantzi zuenean. Aspaldi da eta ez dakit orduan, artean, derbi hitza erabili ere erabiltzen ote zen. Martzelinorekin urbanoan edo lñakirekin kotxean. Deabruen inperua ezagutu nuen. Altzibarren eta Txerloian. Batean eta bestean, bietan. Zuri-beltzeko oroitzapenak. Xapo eta Xakelen xextrak, borrokarik ez. Adarjotze latzak. Nodoa joan zen, eta aro digitala etorri da. Zuri-beltzeko derbiak joan ziren, eta

3.0 derbiak etorri dira. Pasioak eta grinak jarraitzen du. Azala aldatuko zen, baina mamia ez. Ezin aldatu xapoek irabazten jarraitzen dutelako. Hori bai, gorri-gorrixen zaleen portaearak eta grinak enbidia handia ematen du. Eta palkoan, 155a ahoz aho zebilen egunean, nire jainkoaren iloba erreinu zahar eta zaharkituko futbol agintari txit gorenaren alboan. Ederra argazkia.

Txerloian elkar ikusi arte, datorren urterako ere gonbita luzatuta duzue aitzaren goikaldean bizi zareten anaiok. Aitzaren azpian zai egongo gara. Beste hiru puntu...*



txetxu urbieta

IKUSTEKO!



▲BIZIKLETA, APAINGARRI GISAN.

Herriko kaleen bizigarri dira inguruan ditugun lorategiak, baina Paulo VI auzoan, hango kale-argi batera giltzarrapoarekin lotuta, bizikleta bat jarri du apaingarri moduan herritar batek. Zuriz margotutako txirriak aurrealdean eta atzealdean saski bana ditu, lorontzi funtzioa betez. Bizikleta zaharrak birziklatzeko modu aproposa, inondik ere! 🗑️🗑️ **Ainitze Agirrezabala***

URRIKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Diktadura edo demokrazia

KATALUNIA. Pasa den urriaren 1 ean, hitza hartzen eta bere etorkizuna erabakitzen ikusi genuen Kataluniako herria. Baina, egun berean, ehundaka zauritu utzi zituen herritarren aurkako aktuazioa egiten ere ikusi genuen polizia. Ikaragarria izan zen azkar egindako kontzentrazioan zenbat herritarrek parte hartu zuten ikustea. Umeak, gazteak eta helduak batera, zartaginen zarata bidez, demokraziaren defentsan eta poliziaren jarrera gaitzesten. Estatu makineriaren bortizkeria hura ikusita, norbaitek esango al dit zein den frankismoaren eta demokrazia honen arteko desberdintasuna?



Ieltxu cavallero



“Nola egin dute hori?”

MAGIA. Txikitan gehienok gelditu izan ginen harritura magia ikuskizunekin, “nola egin dute hori?” galdetzen genion geure buruari. Duela gutxi, txikitan baino harrituago gelditu ginen magoek eta ilusionistek egindako trikimailuekin, eta umetako galderak eginez bukatu genuen egun magikoa.



Eskerrik asko!

ODOL EMAILEAK. Askotan ez dugu pentsatzen odol emaileek besteeiko duten borondatezko konpromisoa eta elkartasuna zenbaterainokoa den. Horiek duten eskuzabaltasunari esker, larri egon daitezkeen pertsona ugari onik ateratzeko aukerak handitzen zaizkie. Hona-

ko lerro hauek idazteko aukera izanda, eta horiek aprobetxatuz, odol emaile guztioi eskerrak eman nahi nizkizueke. Eta baita hezur-muin emaileoi, organo emaileoi eta konpromiso bera duzuen emaile guztioi ere.✳

INKESTA

kirol patronatuko
tarifen inguruan
zer iritzi duzu?

 Ainitze Agirrezabala

MAMEN SALDAÑA

50 urte



“Garai batean, sendiko bonoa genuen, eta aerobikera joatea, esaterako, merkeago ateratzen zitzaidan. Aurten, alabak asmoa zuen jumping-ean hasteko, baina jada ezgara bazkide, eta askoz ere garestiagoa da”.

ANA ALDALUR

55 urte



“Bi semeak dira bazkide, eta 190 euro ordaintzen du kuota bakoitzak urtean. Kalkuluak eginda hobeto da sendiko bonua egitea. Pixka bat garestia da etxean soldata bakarra dugu eta, baina, bestalde, semeak eguneroko doaz eta ondo amortizatzen dute”.

MAILLO HERNANDEZ

58 urte



“Ez naiz bazkide, baina pilatesera joate naiz. Bazkide izan edo ez, alde izugarria dago ordaintzerakoan. Zerbitzu gehiago ez ditudanez erabiltzen ez dit merezi bazkide egitea”.

PELLO ODRIUZOLA

11 urte



“Ez nuke jakingo esaten tarifa garestia den edo ez, gurasoen ordaintzen dute-eta bazkidetza. Neure poltsikotik ordaintzen hastean esango dizut...”.

Gabon laikoak?

Zuhaitzei hostoak erortzen hasten zaizkienean eta supermerkatuetan turroi mordoak jartzen dutenean, Gabonak datozen seinale. Egun bereziak dira batzuentzat, magikoak umeentzat. Irribarrez gogoratzen ditut garai haiek, baina orain kontraesanak ditut barnean.

Eskola laiko batera joan nintzen, inoiz ez dut erlijioa izan nire ikasgaien artean, baina Gabonak gerturatzean Jesus haur jaioberriaren abestiak kantatzen jartzen ninduten. Eskola gune laikoa izaki, katolizismoaren doktrinamendu-eremu bihurtzen zen, eta hori normalizat genuen.

Umetan hasi nintzen erlijioaz hausnartzen, eta behala ohartu istorio hura ez zela nirea. Etxean ere ez nuen katolizismoaren apologiarik ikusi, eta orain nire gurasoen lekuan jarrita, ez dut argi nola tratatu gaia haur batekin. Nola azaldu eskolan eta kaleko bozgorailuetan etengabe entzuten dituen Gabon kanten atzeko ideologia? Nola esan haurrari hiru




lierni varela

errege kuttunek ez diotela oparirik ekarriko kristauak direlako eta etxean katolikoak ez garelako, baina Olentzerok, aldiz, bai? Noraino zapuztu/moldatu festa?

Errealitatea antza da: jendeak Jesus, Allah, Vishnu... gurtzen du, edo inor ere ez. Denak dira balizkoak eta errespetagarriak. Gure gizartea, zantzu katolikoz blai dago, ordea, Eliza indartsua baita. Gainera, txikiei gozoki batean bilduta saltzen zaie Jainkoaren istorioa: opariak.

Hor dago koska. Nola ukatu umeari Gabonetako pertsonaia magikoen opariak, eta haien inguruko parafernalia eta ilusioa? Nola islatu data horietan gaurko aniztasuna? Jaunaren Natibitatea ospatzen hasi aurretik hemen neguko solstizioaren festa egiten zen. Eta Gabon katolikoetatik Neguko Festak ospatzera igaroko bagina? Kutsu erlijiosoa kendu eta festa publikoetan ahalik eta pentsaera mota gehien biltzen saiatuko bagina? Eta...?*

galdetzen hasita, Lortuko al dute
#Annapurna II_1986 proiektua gauzatzeko
behar adina diru sustatzailerak?  Uztarria

Profeta herejearen omenez

2017 urriaren 31 honetan betetzen dira 500 urte justu Martin Luterok bere 95 tesiak argitaratu zituela. Idazki labur, neurtu eta zorrotza. Profetikoa.

Aita santuak ez du eskubiderik –salatzen zuen Luterok– induljentiak saltzeko; heriotzaren ondoren purgatorioko sutatik diruaren truk libra zitekeela sinestartzeko; oraingo zeruak geroko infernu, eta oraingo infernuak geroko zeru bihurtzeko; bere dirukutxak betetze aldera, pobreen sinestakizunak eta beldurak baliatzeko.

Laster jaso zuen aita santuaren erantzuna. Idazki horretan bazela zenbait heresia, eta bietan bat aukeratzeko: atzera egitea ala eskumikua. “Kontzientzian ezin dut atzera egin”, esan zuen Luterok. Eta eskumikua izan zen. Profeta hereje bilakatu zen.

Profeta herejea? Gaztetako teologian ez nuen horrelakorik ikasi, baina, harrezkero, ikusi dut profeta guztiak izan direla modu batera edo bestera hereje, erlijioan nahiz politikan, zientzietan ere bai sarri. Here-



joxe arregi

datutako egiak zalantzan jarri dituztenek eragin diotela historiari aurrera. Berritzaileek bultzatu dutela giza-dia etorkizun hoberantz, “hauxe da” inoiz esan gabe.

Ebanjelioak erakutsi dit Jesus ere profeta heretikoak izan zela. Gupida hobetsi zuen sinestakizun eta erlijio-betebehar guztien gainetik. Zauriak zitzaizkion axola, ez bekatua. Oraingo munduaren askapena iragarri zuen, ez geroko bizitzako sari eta zigorrak. Azkenak aurren bihurtu zituen, eta aurrenak azken.

Elizaren historiak erakutsi dit Akinoko Santo Tomas Pariseko gotzainak kondenatu zuela, Loiola San Inazio Inkisizioak zazpi aldiz prozesatu zuela, Avilako Santa Teresa Inkisizio berak zelatapean eduki zuela eta Gurutzeko San Joan atxiloturik egon zela. Eta abar luzea. Profeta izateko ez da aski hereje izatea, baina hereje izan gabe ezin da profeta izan.

Luterok, profeta hereje, gaur Erromak ere “Ebanjelioaren lekuko” deitzen zaituena, zakizkigu lagun. Profeta hereje guztiok, zakizkigute bide-gidari.*

HAU HOLAXEENK



Aisialdiaren ihesa

Uria igaro da. Betiko inertziak harrapatu gaitu bere sareetan, eta lan kontuak zein ordutegiak zehaztu ondoren, aisialdirako geratu zaigun denbora apurra zertan pasatu erabakitzearen dilemarekin topo egin dugu kale kantoian, lagunene batekin kafea hartzera gindoazela. Ingelesa tajuz ikastea, egin gabekoen zerrandan idatzita dago aspaldian. Kirola egiteko tarteak ere atera beharko genuke, Kirol Patronatuan harpidetza egin genuenean aurpegira barre egin ziguten haien ahoak ixteko bada ere. San Silbestrean izena emateko aukera ireki dute, gainera. Musika

tresna berriren bat ere ikasiko genuke, klaseko ordu erdiak erlaxatuko gaituelakoan. Posta elektronikoko sarrera ontziak ere *on line* ikastaro mordoak jarri dizkigu eskura, eta, agian, aspaldi landu ez dugun arloren batean sakontzeko erabil ditzakegu horiek. Total, ikastaro horien denbora nahi dugun moduan kudea dezakegu. Herrigintza ere zilegi izango da. Herriko kultur proiekturen batean aletxoak jarri, kirol talderen batean muturra sartu edo gizarte egitasmoren batean zer ekarpen egin dezakegun erabaki beharko dugu. Eta egin nahi ditugun zerranda osatuta iritsi

gara kafea hartzeko zita genuen lekura. Gaur, arratsaldeaz disfruta dezala esan diogu lagunari, ez gaituela denbora luzez ikusiko, eta psikoanalistarekin ordua non kokatuko dugun pentsatzeari ekin diogu, guzti horrek sortutako antsietatea eramaten lagun gaitzan.

Zortzi urteko ume bati asteko egutegia ostu diot, eta asmoetan ditudan aisialdi aukera guztiak zerrendatuta ditu, koloreztatutako lauki batean, erakargarriago egingo zaizkielakoan. Parkeko jolasari dagokion kolorea biltzen nabil, baina ez dut aurkitu.*



felipe murillo

Erotikan Plax!

Kirol hezitzailea eta koordinatzailea ez ezik, Azpeitiko Jabetze Eskolaren barruko Emakumeok Pilotari proiektuaren ardura duna da Badiola. Hil honetan berari egokitu zaio Arremanitzeko kideen galderei erantzutea.

Laneko gustuko une bat?

Entrenamendu edo partida ostein elkarbanatzen duguna.

Kirola ondo egiteko, garrantzitsua da beroketa. Zerk lagun dezake erotikan?

Berarekin konfiantza dakarren inguruko giro osoak.

Osasuntsu egoteko sekretua?

Pozik eta lasai bizitzea.

Zerk motibatzen zaitu?

Erronka berriei aurre egiteak. Elkarrizketa honek, adibidez! [Kar, kar, kar]

Emakume kirolariak...

Gizonezkoak bezalaxe, edonon eta nonahi.

Zer pasatzen zaigu buruz gain?

Kirolean dagoen diskriminazioa, berdintasun eza.

Harremanetan, noiz bota-

ALAITZ BADIOLA

Adina. 36 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Kirol hezitzailea eta koordinatzailea.



tzen dugu pilota txapapera?

Partida galduta ikusten dugunean.

Zer egingo dugu jokoaren arauak errespetatzen ez dituenarekin?

Kantxatik kanpora!

Buruz buru edo binaka?

Binaka.

Zer nahiago: larruzkoa edo gomazkoa?

Larruzkoa.

Hormaren kontra jartzen gaituztenean...

Nahiz eta egoera zaila izan, ezkerrez bada ere, bueltatzen saiatu.

Ligatzerakoan, jokaldi azkarrak edo luzeak nahiago?

Luzea.

Zer aldatu behar litzateke pilotalekuan?

erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:

Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, azaroa: hilaren 8an eta 29an
(16:00-19:00) eta 18an (10:00-13:00).

Ikuslearen begirada.

Hondartzan, logelan, frontoian...

Denera gustura eta goxatzen.

Postre goxo bat?

Gazta eta irasagarria. Intxaurrek lagunduta bada, hobeto.

Pilak kargatzen dizkizun plan bat?

Siesta on bat.*



haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)



Pasaian izan zen

‘Pasaiaiko badia’ dokumentala ondu dute Yuri Agirrek, Xabier Otamendik eta Erik Aznalek. 1984an Espainiako Poliziak Pasaian egindako segada eta hilketak ditu oinarri ikus-entzunezko lanak. 📌 Julene Frantzesena 📍 Oinatzak



▼ **HAINBAT KOKALEKU.**

Dokumentalaren grabaketak egiten hasi aurretik, hainbat proba egin zuten Oinatzak Produzioak ekoizpen etxeko kideek. Han eta hemen izan ziren kamerarekin kokalekuak aukeratzen, hala nola Eibarko eta Azpeitiko gaztetxeetan, Gorostieta baserrian, Txantrean, Iruñerrian, Sakonetan eta Pasaian.



▲ **PARAJE BILA.**

“Aspalditik” zuten Yuri Agirrek eta Xabier Otamendik 1984ko martxoaren 22an Pasaian izan zen segadaz dokumentala egiteko ideia buruan. Egun hartan, Espainiako Poliziak Komando Autonomo Antikapitalistetako Dionisio Aizpuru *Kurro* eta Pedro Mari Isart *Pelitxo* azpeitiarrak eta Rafael Delas *Txapas* eta Jose Maria Isidro Izura *Pelu* iruindarrak hil zituen Pasaiaiko badian. Dokumentala egitea erabakita, 2015eko udazkenean hasi ziren grabaketak egiteko lokalizazio bila, eta lan horrekin jarraitu zuten 2016aren hasieran ere. Pasaiaiko badian egina da goiko irudia.



◀ **GRABAKETAK.**

2016ko maiatzean egin zituzten grabaketa gehienak. Hainbat lagunen testigantzak bildu zituzten: segadan hil zituzten lau lagunen senideenak, segadatik bizirik atera zen Joseba Merinorena, poliziek amu gisa erabili zuten Rosa Jimenorena, Santi Gonzalez familien abokatuarena, Miguel Castells Azpeitiko Udalaren abokatuarena, Paco Etxeberria auzitegi medikuarena, Carlos Garaikoetxea orduko lehendakariarena, Fernando Orgambides *El Paiseko* kazetariarena eta Enrique Villarreal *El Drogas* musikariarena. PSOEko ordezkariarekin harremanetan jartzen saiatu ziren egileak, baina ez dute erantzunik jaso. Irudian, lantaldea Arantxa Isart Pelitxoren arrebarekin grabaketak egiten, Soreasun.



▲ **PACO ETXEBERRIA.**

Paco Etxebarria auzitegi medikua ere elkarrizketatu dute dokumentalerako. Izan ere, Etxebarriak egin zien lau hilotzei autopsia. Medikuaren arabera, posta kartutxoekin egindako tiroak zituzten Kurrok eta Txapasek. 2001ean kasua argitzeko lagungarri izan zitekeelakoan, beste autopsia bat egiteko eskatu zion Etxebarriak epaileari, baina ez dute egin.



▶ **MERINOREN TESTIGANTZA.**

Joseba Merino da Pasaiaiko segadatik bizirik atera zen kide bakarra. Haren testigantza ere jaso dute ikus-entzunezkoaren egileek. Hain zuzen ere, Eibarko Gaztetxean elkarrizketatu zuten Merino. Argazkian, lantaldea hizlariaren testigantza jasotzen. Irudian Izeia Urdanpilleta azpeitiarra ere ageri da; izan ere, bera arduratu da dokumentaleko hizlariak makillatzeaz-eta.



▲ **ABOKATUEN LANA.**

Pasaiako segadaren auziari behin eta berriz itxi dizkiote ateak epaitegietan. Auzia hainbatetan artxibatu ostean, Azpeitiko Udalak babes helegitea jarri zuen joan zen martxoan Espainiako Auzitegi Konstituzionalean. Gaur-gaurkoz, ez dago epaitegi horren erantzunik. Argazkian, Miguel Castells Pasaiako segadaren kasuan Udalaren abokatua dena. Familien abokatua, berriz, Santi Gonzalez da, eta hura ere elkarrizketatu dute.



▲ **EL DROGASEKIN, IRUÑEAN.**

Barricada musika taldeko abeslari *El Drogas* ere elkarrizketatu dute dokumentalerako, han gertatutakoaz abestia egin zuelako. Iruñean elkartu ziren harekin bere entsegu lokalean. Dokumentalaren ekoizpen prozesuan hainbat pertsona izan dituzte bidelagun azpeitiarrek; bestea beste, Ibon Toledo eta Idoia Sanchez, Patxi Azpillaga eta Koldo Eizagirre. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Otamendi, Toledo, El Drogas, Sanchez eta Agirre.



► **KALUSEREN MUSIKA.**

Lanari musika Kaluse Azpeitiko musika taldeak jarri dio. Argazkian, Felipe Murillo biolina jotzen eta Oihan Lizaso kidea soinu mahaian, 2Noisy estudioan.



◀ **ESTREINALDIA.**

Joan zen urriaren 24an aurkeztu zuten *Pasaiako badia* lana Iruñeko Golem Baiona zinema aretoan. Jendetza izan zen estreinaldian, eta bertan izan ziren Agirre, Otamendi eta Aznal lanaren egileak. Ikus-entzuleen kritika oso onak jaso dituzte, eta "gustura" dira hirurak. Datozen asteetan Euskal Herriko hainbat aretotan emango dute dokumentala.

EGUZKIÑE PEÑA

futbol jokalaria

“Realean jokatzeari amesten nuen txikitari”

Lehen Mailan zazpi urtez aritutakoa da, eta eliteko emakumeen futbola eta joko-zelaian jasaten duten “diskriminazioa” izan ditu hizpide. 📌📍 Ainitze Agirrezabala

Azpeitiko Kultur Mahaiak, Erlo Telebistak, Sanagustín kulturguneak, *Urola Kostako Hitzak* eta Uztarría Komunikazio Taldeak *Sanagustingo Elkarrizketak* zikloari ekin zieten, iazko maiatzean. 2013 eta 2015 artean *Aho Bizarrik Gabe* zikloa egin zuten Euskal Herriko jende ezagunarekin, eta hamabi gonbidatu izan zituzten, Sanagustinen. Oraingo honetan, berriz, azpeitiar ezagunak dira gonbidatuak, eta Eguzkiñe Peña futbolaria izan da seigarren elkarrizketatua. Ziklo honetan zuzeneko ikuslerik gabeko saioak egiten dira, baina, elkarrizketa guztiak irakurgai eta ikusgai daude antolatzaileen hedabideetan.

Duela mende laurdena jaio zen Eguzkiñe Peña Azpeitian, eta nera-

be zela hasi zen futbolean Lagun Onaken. Zazpi urtez Espainiako Lehen Mailan jokatu ostean, Bigarren Mailan dago aurten, Oiartzunen. Futbol ibilbidea eta emakumeek joko-zelaian duten presentzia izan ditu hizpide, besteak beste.

Kolpe handia izan al zen Lehen Mailako Oiartzun taldearekin mailaz jaistea iaz?

Bai. Realetik Oiartzunera joatean, banekien talde txuri-urdinean egonkortasuna genuela mailari zegoenez eta Oiartzunen gogor borrokatu beharko genuela mailari eusteko. Futboleant jaso dudak kolperik gogorrena izan da. Ez nuke berriz une hura bizi nahi.

Elitean segitzeko talderen batek aukerarik eskaini zizun?

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1992ko martxoaren 5a.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizi tokia.** Donostia. |||**Lanbidea.** Futbolaria eta masajista.

Aukera izan nuen, baina oso urrutikoa zen taldea, Espainiakoa. Ez zidan merezi hemen nuen dena utzi eta hara joatea han futboleant urte bat edo bi egiteko. Nire aukera hemen geratzea izan zen.

Lagun Onaken lehendabizi, Realean gero, eta, orain, Oiartzunen. Egindako futbol ibilbideaz zer balorazio egingen duzu?

12 urterekin hasi nintzen futboleant Lagun Onaken, eta, han nintzela, Eibar taldearekin jokatu nituen pare bat txapelketa. Baina Lagun Onaken jarraitu nuen, gurasoek hala erabakita. Tranpa txiki batzuk

egin genituen; izan ere, 13 urtetik aurrera hasten dira lehiatzen. Gero, Realean aritu nintzen, eta, orain, Oiartzunen nago. Esango nuke ibilbide polita eta aberasgarria izan dela, gauza asko ikasi ditudalako eta pertsona bezala heldutasuna eman didalako futbolarik. Egoera gogor asko bizi izan ditut, polit asko ere bai, baina, azkenean, egoera gogor horietatik asko ikasi dut eta politekin gozatzen jakin dut. **Zuretzat ametsa al zen Realean joatea?**

Bai. Gorengo mailan zegoen Realean jokatzeari amesten nuen txikitari. Realera iritsi nintzenez, poz handia hartu nuen.

Espero zenuen horrekin egin al zenuen topo?

Nire helburu nagusia zen futboleant



Eguzkiñe Peña Garmendipeko futbol zelaiko harmailetan. ||| Ainitze Agirrezabala

ahalik eta maila gorenera iristea, Realera, alegia, eta 18 urterekin lortu nuen. Azpeitia herri txikia da, eta bertako emakume bat Realera iristea izugarria izan zen. Guztiek ezagutzen ninduten, baina, bestalde, futbolak gauza asko mugatu zizkidan: familiarekin eta lagunekin egotea, adibidez. Izan ere, bi aste-bururitik behin kanpora joaten ginen jokatzera, eta entrenamendu asko genituen. Baina ametsa egia bihurtu zitzaidan.

Gurasoek etxean zer aholku ematen zizkizuten?

12 urterekin neska baten nahia da Eibar bezalako talde garrantzitsu batean hastea. Nik aukera izan nuen Eibarren aritzeko, baina gurasoek nahiago izan zuten herrian, Lagun Onaken, geratzea. Izan ere, Eibarrera joan-etorrian ibili behar nuen, eta ikasketek ere garrantzia zuten. Gero, Realera joateko parada izan nuenean, beraiek esan zidaten aukera garrantzitsua zela. Zentzu horretan, beti askatasuna

eman izan didate nahi dudana egiteko eta neure buruaren jabe izateko. Egia esan, eskertzekoa da gurasoek askatasun hori ematea. Zorteduna izan naiz.

Nondik datorkizu futbolera-ko zaletasuna?

Etxean futbola izan da kirol garrantzitsuena. Anaia ere Realean ibilia da, eta aita ere futbolaria izandakoa da. Ama futbol mundutik kanpo geratu izan da, baina, azkenean, bera ere bultzatu egin dugu mundu horretara. Orain, oso ondo pasatzen du amak ere, eta astebururo nahi izaten du nire partidak ikustera joatea.

Eskubiko belauneko meniskoko lesioa medio, ebakuntza egin zizuten duela hiru urte. Oro har, urteotan errespetatu al zaituzte lesioek?

Denboraldia luzea izaten da, eta beti izaten dituzu lesioak. Nire kasuan, larriena belaunekoa izan da. Meniskoa hautsi nuen, eta hiru hilabete egin nintzen jokatu gabe.

Duela bost urte, berriz, hankako hezur txiki bat puskatu nuen, baina inoiz ez naiz lau hilabete baino gehiago egon geldirik. Eta hori zortea izatea da. Esan dezaket lesioek errespetatu nautela.

Euskal Selektzioarekin ere jokatuakoa zara. Nola ikusten duzu emakumeen Euskal Selektzioa? Zer egoeratan dago?

Euskal Selektzioarekin jokatzeko aukera behin izan nuen, eta, gainera, Garmendipen. Niretzat momen-

tu politenetakoa izan da. Uste dut emakumeen futbola aurrera doan heinean, nesken Euskal Selektzioa ere aurrera doala eta pauso garrantzitsuak ematen ari direla. Nire ustez, ofizialtasuna da lortu behar dena eta emakumeek ofizialki Euskal Selektzioarekin jokatzeko.

Posible ikusten al duzu emakumeen eta gizonen taldeak lehia ofizialetan aritzea etorkizunean?

Espero eta nahi dut ofizialtasuna izatea, eta hor Kataluniaren eredu jarraitu behar dugula uste dut.

Zuk esana da futbolak itzuli egiten duela kendutakoa. Zer kendu dizu futbolak? Eta zer eman?

Egia da, bai, esaldi hori neurea da. Bizitza pertsonalean ordu eta gauza garrantzitsu asko kendu dizkit futbolak, baina eramaten jakin dut, eta futbolekin eginez bizitzen ikasi dut. Eman, berriz, gauza asko eman dizkit: heldutasuna, egoera zalei aurre egiteko gaitasuna, la-

“oiartzunekin mailaz jaistea izan da jaso dudana kolpe goxorrena”

“Gurasoek beti eman didate askatasuna nahi dudana egiteko”

gunak... Uste dut oso garrantzitsua dela talde batean elkarbizitzen ikastea eta jakitea. Bakarkako kirola egiten dutenek ez dute aukerarik balio horiek ezagutzeko: errespetua, talde dinamika... Eta horien bidez asko ikasi dut.

Emakumeen futboleant, zer pauso eman dira eta zeintzuk falta dira emateko?

laz pauso handia eman zen emakumeen kirolean. Iberdrolak diru kantitate handia eman zuen emakumeen kirola bultzatzeko. Pixkanaka-pixkanaka ari gara aurrera egiten, baina oraindik gauza garrantzitsu asko falta da egiteko. Oraindik ere mutilekin alderatuta, desberdintasuna oso handia da.

Esaterako, Realeko nesken eta mutilen taldeek asteburu berean Valentzian jokatu zituzten partidak. Mutilek joan-etorria hegazkinean egin zuten; neskek, aldiz, autobusean.

Bai, desberdintasun handiak daude, eta uste dut desberdintasun handiena dela mutilak futboletik bizi direla eta gu ez. Eta seguru nago, gainera, emakumeok denbora gehiago eskaintzen diogula futbolari. Eman duzun adibide horri dagokionez, neu bidaia horretan nintzen, eta egia esan, halako erabakiek barrua ukitu egiten dizute. Mutilak izateagatik bakarrik hegazkinez joan ziren, eta guk, emakumeok, autobusean zazpi ordu joaten eta beste hainbeste etortzen pasatu behar izan genituen, bidaia egun berean izanda. Uste dut Realeko jendeak barne hausnarketa

“Garrantzitsua da oso talde batean elkarbizitzen ikastea eta jakitea”

“Lagun onakengandako urteetan ikaragarri disfrutatatu nuen”

bat egin behar duela, jabetzeko guztiok berdinak garela eta gizonen eta emakumeen artean ez duela halako diferentziarik egon behar. Espero dut etorkizunean halako gauzak aldatzea.

Nahiz eta maila berean aritu, nesken eta mutilen futbolari komunikabideek ematen dieten ohiartunari eta tratamenduari dagokionez, zer esango zenuke?

Gauzak ari dira hobetzen, baina oraindik asko falta da egiteko. Orain, telebistan emakumeen hiru norgehiagoka eskaintzen dituzte asteburuetan, eta egunkarietan ere gehiago azaltzen gara. Emakumei ematen zaigu geure tartea. Askoz gehiago nahiko genukeela? Bai. Baina ari gara pixkanaka, eta nik uste dut gauzak apurka egitea garrantzitsua dela.

Athletic izan da erreferentia emakumeen taldea sortzen, eta orain ja klub indartsu guztiek dituzte beraienak. Eibarrek ere egundoko inbertsioa egin du aurten, Alavesek ere taldea atera du... Zer iruditzen zaizu: klubetan benetan ari dira kontzientziazten edo marketing kontua da?

Athleticek izugarritzko lana egin izan du emakumeen kirolean, eta, zentzu horretan, uste dut beraiek egin duten lana oso ereduagarria izan dela beste klubentzat. Emakumeen taldeak dituzten klub handiak badira bai, askok badituzte, baina, adibidez, Real Madrilak ez dauka. Nik entzun dudanagatik, taldearen presidentek esan zuen emakumeen futbolak diru sarrerarik ez duela ematen, eta horregatik ez du emakumeen talderik Real Madrilak. Nik nahi eta espero dut emakumeen futbola bultzatu nahi dutelako dituztela klubek emakumeen taldeak. Gero, marketing kontua dela? Nire iritziz pertsonalak ez dakit askorako balio duen, baina iruditzen zait badela marketing kontua. Orain, zein klubetan bai eta zeinetan ez? Ez dakit.

Eliteko futbolaria izanda ere,



Peña Oiartzun taldean, 93. minutuan sartutako gola ospatzen. || E. Peña

ezin da horretatik bizi. Zer egiten duzu futbolaz gain?

Euskal Herrian eta Espainian futboletik bizitzea oso zaila da. Egia da Espainiako puntako taldeetan, Athletic Madrilan edo Bartzelonan, emakume jokalarik asko bizi direla horretatik, baina kontuan izan behar dugu hemendik hamar urtera ez direla futboletik biziko. Momentuko kontua da. Gero, egia da, Frantzian, Ingalaterran eta Europako beste hainbat lekutan bizi direla emakumeak futboletik, eta bizi ahalko direla urte askoan, gainera. Baina hemen ez, eta pena da. Espainiako Hirugarren Mailako jokalarik batzuk bizi dira futboletik, baina Lehen Mailako emakumeak, aldiz, ez. Noski, niri gustatuko litzaidake futboletik bizitzea, baina kasu honetan ezin da, eta futbolaz gain, umetxo bat zaintzen dut eta masajista naiz. Beraz, nire bizimodua horietatik ateratzen dut.

Lagun Onakengandako urteetan, zer oroitzen dituzu?

Oso gaztea nintzen. Oroitzen dut eskolaz kanpo saskibaloia, pilota, futbola... genituela, baina ja klub batera joatea eta hango parte sentitzea izugarria zen ume batentzat. Azkenean, ikastolako lagunez aparte, beste lagun talde bat ere banuen, eta hori bizipoza zen. Lagun Onakengandako urteetan ika-

garri disfrutatatu nuen, eta oroitzapen horiek guztiak hor ditut betirako. Izugarri ondo pasatu nuen, eta hori ume batentzat oso garrantzitsua da. Oraindik ere, garai hartan taldekide izan nituenekin harremana dut, eta hori oso aberasgarria da.

Lagun Onakengandako urteetan, zer oroitzen dituzu? Zer oroitzen dituzu? Zer oroitzen dituzu?

Uste dut garrantzitsua dela herri batentzat emakumeen futbola bultzatzea, eta Lagun Onakengandako urteetan egin du emakumeen taldea edukitzeko. Egia da, halere, alor batzuetan kostatu egin zaiela aurrerapausoak ematea. Emakumeen taldea edukitzea ondo dago, baina pixka bat landu egin behar da hori ere. Garai batean, esaterako, Lagun Onakengandako urteetan neskek izugarritzko lana egin zuten. Adibidez, beraiek lortu ez zituzten gauzak ondorengook lor genituzten lan egin zuten. Borroka handia izan genuen, esaterako, belarretan jokatzearekin. Mutilek belarretan entrenatzen eta jokatzen zuten, eta guri ukitzen ere ez ziguten uzten. Alda-geletara joaterakoan, belarretatik pasatzen ere ez ziguten uzten. Nik aukera izan nuen belarretan jokatzeke, eta zenbaitek esango du txorakeria dela, baina artifizialean

||| MOTZEAN |||

GALTZEKO TXOKO BAT?

Itsasoa eta mendia dituen lekuren bat.

AMETS BAT?

Zoriontsu bizitzen segitzea.

OROITZAPEN BAT?

Tailandiako bidaiia.

BIZIO BAT?

Futbola.

NOLA DEFINITUKO ZINATEKE?

Nire lagunen laguna.

ZERK POZTEN DIZU EGUNA?

Gosari eder batek.

ZERK GARRAZTEN?

Injustiziek.

BELDURRA ZERRI?

Hegazkinei.

BESTEENGAN ESTIMATZEN DUZUN BERTUTEA?

Leialtasuna.

SARRITAN ZEURE BURUARI EGITEN DIOZUN GALDERA?

Gauza hau beharrezkoa dut?

USAIN BAT?

Belar moztu berriarena.*

jokatzea edo belarretan lehiatzea, garai hartan egundoko aldea zen emakume batentzat. Eta hori esker-tu beharra dago, eta esan beharra dago garai hartan Lagun Onakeko emakumeen taldean zeudenek egin zuten lana izugarria izan zela. Izan ere, haiek egindako lanari esker izan nuen nik aukera belarretan jokatzeko.

Gaur egun, nola dago kontu hori?

Uste dut lehengo aldean askoz ere hobeto dagoela gaia. Ez nago ziur, baina uste dut gaur egun emaku-

meek jokatzen dutela belarretan. Baina lehengora itzuliz, orain senior taldea ateratzea aurrerapauso da, umeekin pentsatuta egin den apustua da, eta egia esan, pozten naiz.

Herrietako klub txikietan emakumeen futbola bultzatzeko zer egin daiteke?

Uste dut ez dela futbolaren munduan bakarrik egin behar; izan ere, herri txikietan oraindik aurrerapauso asko eman behar dira gizonak eta emakumeak berdintzat. Kirolean eta bizitza pertsonalean ere bai, genero bereizketarik gabe guztiak berdintzat oso garrantzitsua baita.

Lagun Onakek zuzendaritza aldatu zuenean, aurkezpenean adierazi zuen beren helburuetako bat zela emakumeen futbola indartzea. Horren barruan, besteak beste, zu Lagun Onakeko zuzendaritza batzordean sartu zinen.

Niretzako oinarrikoak diren gai batzuen inguruan diferentziak egon ziren zuzendaritza batzordean, eta batzordea uztea erabaki nuen duela hilabete batzuk. Egia esan, ez naiz damutzen erabaki hura hartu izanaz. Uste dut egoera bakoitzaren aurrean konponbide desberdinak egoten direla eta arazo konpon daitekeela, baina horretarako, batzordeko kide bakoitzak sortu zen egoeraren inguruko barne hausnarketa egin behar du.

Aurtengo Lagun Onakeko Hirugarren Mailako taldearen entrenatzaile Igor San Miguel Realeko nesken entrenatzailea izana da. Zeurea ere bai, ezta?

Bai. Egia da denboraldi hura gutxi jokatuta nuen izan zela, baina hark duen gertutasuna eta berarekin egin nuen harremana oso garrantzitsuak izan ziren. Igorrekin oso harreman ona dut. Lagun Onaken Hirugarren Mailako mutilen taldean entrenatzailea behar zela eta, Igor proposatu nuen, uste dudalako maila horretarako behar den jakintza baduela. Gero, Igorrek hona etortzea erabaki zuen, eta asko pozten naiz beragatik, asko balio



Peña, Realaren partida batean. ||| E.P.



Peña-beheko ilaran, ezkerretik bigarrena-Lagun Onakeko taldearekin. ||| E.P.

duen pertsona baita. Gauzak ondo egiten ari da, eta berak nahi duena irabaztea espero dut, merezi baitu.

Talde berean edo aurkari, zein da ezagutu duzun jokalarionena? Eta Azpeitiko jokalarionena?

Realean aritu nintzen lehen urtean aukera izan nuen Irene Paredesekin jokatzeko, eta euskalduna izateaz gain, oso profesionala da. Orain, Paris Saint-Germain taldean dago. Uste dut guztiotzat eta euskaldunotzat eredu garria izan behar duela Irenek. Berak egin duen ibilbidea eta erakutsi duen jarrera izugarri aberasgarriak dira. Pertsona umila da oso, asko balio duena, eta daukana ondo merezia du. Bestalde, nik aukera izan nuen bi lehengusurekin jokatzeko, Lorea Landarekin eta Maite Aranagarekin. 13 urte nituen, eta izugarria

izan zen. Ondoren, gazteteagoa den Ainhoa [Bereziartua] lehengusurekin jokatzeak aukera ere izan nuen. Agian, jokalaria bezala ez dira onenak izango, baina betirako gordeko ditudan oroitzapenak dira. Lorea, Maite eta Ainhoarekin geratzen naiz.

Gaur egun, Donostian bizi zara. Zer harreman duzu Azpeitiarekin?

Han eta hemen bizi naiz. Realean nengoen garaian ere joan-etorriani ibiltzen nintzen, baina, orain, nire egoera pertsonalagatik hobeto datorkit Donostian bizitzea. Zortez, han badut etxea bizitzeko, baina nire jaioterria hau da, eta familia eta lagun guztiak hemen ditut. Askosumatzten dut faltan Azpeitia, eta familia eta lagun giroa ere bai. Ahal dudan guztian etortzen naiz Azpeitira.*

Erabili ala ez erabili

Euskaraz Ondarroan asko eta Bermeon gutxi zergatik hitz egiten duten aztertuko dute Eneritz Albizu eta Goizane Arana Uemako teknikariek.   Mailo Oiarzabal

Euskararen ezagutza maila jaisten ari da Euskal Herriko udalerrri euskaldunenetan, hala diote azken urteetan egin diren neurketek eta azterketek. Biztanleen %70etik gora euskaldunak dituzten udalerririk osatzen dute Uema (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea), eta horietan ematen ari da, hain justu, ezagutzaren jaitsiera. Faktore hori herri euskaldun gehientsuenetan nahikoa homogeneouso izanda, ezagutza maila oso antzekoa duten herrien arteko erabilera datu kontrajarriek ere piztu dute arreta, ordea, Ueman. “Muturreko egoerak aztertzeko” aspalditxo zutela buruan dio Goizane Aranak (Arrasate, 1977), eta horixe egin dute aurtun Aranak berak eta Eneritz Albizuk (Azpeitia, 1992). Bermeoko eta Ondarroako euskararen erabilera aztertuko dute Uemaren bi teknikariek, batean zergatik jaitsi den hainbeste eta bestean hain ondo zergatik mantentzen den jakiteko asmoarekin.

Euskararen ezagutzan ez dago alde handirik Ondarroaren eta Bermeoren artean: Ondarroan herritarren %79 da euskalduna, eta Bermeon %73. Erabileran, ordea, nabarmena da koska: Ondarroan %79tik gorakoa da erabilera, eta Bermeon 40 puntutik beherakoa.

Zergatien bila

Bizkaiko kostako bi herri arrantzale eta euskaldun ustez antzeko horietan euskara erabiltzerakoan horrelako aldea zerk eragiten

zuen jakin nahi zuten Albizuk eta Aranak. Urtarrilean hasi eta uztailean bukatu zuten lanean, lehendik eginda zeuden azterketetako datuak jaso zituzten, batetik; bestetik, Bermeon eta Ondarroan bertan, guztira 1.024 inkesta egin zituzten, boluntarioekin osatutako hiruna eztabaida talde eratu –gazteekin, helduekin eta adinekoekin–, eta “soziolinguistikaren inguruan jakintzaren bat zuten pertsonekin” launa elkarrizketa izan zituzten. “Horietatik datu pila bat jaso dugu eta gure

||| “Badago arau sozial bat Azpeitian, Ondarroan dagoen bezala, euskaraz egitekoa”

ENERITZ ALBIZU

Uemako teknikaria

||| “Ezagutza transmititzen da Bermeon, baina euskalduntasun identitatea ez horrenbeste”

GOIZANE ARANA

Uemako teknikaria

lana izan da horiek mailakatzea, interpretatzea eta ondorioak ateratzea”, dio Albizuk.

Ezagutza parekotsutik abiatuta erabilera alde nabaria azaldu dezaketen “faktore bat baino gehiago” topatu dituzte azterketaren egileek. Kokapen geografikoa da bat. “Ikusten da Ondarroa babestuta dagoela, udalerrri euskaldunetz inguratuta egoteak nolabaiteko babesa ematen diola, eta handitu egiten direla euskaraz aritzeko aukerak herritik kanpora joanda ere. Bermeon, aldiz, ikusten da behin herritik aterata gutxitu egiten direla euskaraz aritzeko aukerak”, azaldu du Aranak.

“Hipotesietan aurreikusita ez” zituzten ondorioak ere atera dira. Transmisioa, esaterako. “Euskal identitatearen transmisioa oso sendoa” ikusi dute Ondarroan, eta ahul Bermeon. “Ezagutza transmititzen da Bermeon, baina euskalduntasun identitatea ez horrenbeste”, dio Aranak. Haurrek gaztelaniara gero eta azkarrago jotzen dutela eta kezka somatu dute bermeotarren artean: “Orain arte inoiz ikusi gabekoa ere ikusi dutela esan digute irakasle batzuek: euskara klasean bertan, euskarazko ariketak egiten, gaztelaniaz aritzen direla elkarrekin”. Bestetik, “euskaldunen harreman sareak trinkotuago” daude Ondarroan, eta “herri bizitza bera ahulduago” sumatu dute, aldiz, Bermeon.

Erreferenteak dira bi udalerrien arteko beste ezberdintasun bat. Udalak edota ikas-



Eneritz Albizu (atzean) eta Goizane Arana Sindikatu Zaharreko sarreraren ondoan. Han du Azpeitiko bulegoa Uemak.

tetxeek euskararen alde “izugarrizko lana” egin arren, “Bermeon euskarak ez daukala erreferentzialtasunik” ikusi dute. Herri mailako egituretan, elkarteetan eta lagun taldeetan sumatu dute erreferentzialtasun gabezia hori. “Kirol mundua izan da aipatuena eta, horren barruan, futbola; sekulako eragina dauka, indarra daukalako, eta erdaraz funtzionatzen du mundu horrek”, nabarmendu du Aranak. Ondarroan ez bezala, kultur mugimendu indartsurik ere ez dute ikusi Bermeon.

Azpeitia, Ondarroatik gertuago

Azpeitian antzeko ikerketarik ez da egin orain arte, baina dauden datuak oinarri hartuta, Ondarroako egoeraren antz gehiago dauka euskararen erabilerak. “Azpeitia da euskararen erabilera sozialari eutsi dion herrietako bat. Horren erakusle da, ezagutza %83,6koa izanda, erabilera %81,9koa izatea; etxeko

erabilera %69koa izanda, kalekoa hamar puntu baino gehiago altuago izatea. Horrek esan nahi du badagoela arau sozial bat hemen, Ondarroan dagoen bezala, euskaraz egitekoa”, azaldu du Albizuk.

Kokapen geografikoaren –udalerrri euskaldunak ditu inguruan–, erreferentzialtasunaren eta arau sozialaren faktoreak parekoak dira Azpeitian eta Ondarroan. Baita euskalkiarekiko harremanarena ere. “Ondarroarekiko beste antzekotasun bat da hori. Indargune hori ikusten dugu; eredu informalerako oso landutako eta oso barneratutako euskalkia”.

laz egindako kale erabileraren neurketaren emaitzetan, 2009an egindakoarekin alderatuta beherakada bat ikusi zen, lau bat puntukoa. Albizuk dio “erabileraren datua Azpeitian oso-oso goian dagoela” kontuan hartu behar dela; eta “erlatibizatu egin behar dela eta joerak ikusi egin behar direla” deritzo Ara-

nak. “Bermeoren kasuan, azken bi neurketetan ikusi da, lehenengoan 20 puntu behera eta bigarrenagoan beste hainbeste egin duela erabilerak. Hemen, beherakada askoz txikiagoa dela ahaztu gabe, ikusi beharko litzateke hurrengo neurketa egiten denean zer ateratzen den. Dena dela, badira datu batzuk esateko ezin garela erlaxatu, egoerak aldatzen joaten direla”, gaineratu du Albizuk.

“Zaintza lan baten beharra” ikusten dute, euskararen arau sozialari gutxienez bere horretan eusteko; herrian bertan egin beharrekoak gain, zaintza hori lotzen dute hizkuntza politika orokorrak berrikustearekin. Eta etorkinen inguruan sumatzen dute “hutsunea” Azpeitian, Ondarroan bezala, etorkin helduak herrian eta euskararekiko “periferian” gelditzen direlako, oro har. Horiek euskarara erakartzea eta “herri honen parte sentiaraztea” izan behar da bidea, Albizuren ustez.✳

**OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA
AURREKONTUAK ETA OBRA NEURKETAK
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKOA (ITE)**

**JON
ESNAOLA**
ARQUITECTO TÉCNICO
M: (+34) 647 654 506
T: (+34) 943 15 7000
E: info@jonesnaola.es
www.jonesnaola.es

Segi kantuan

Adiskideak nobelekin jarraitzen dit eta asmatzen ari da. Azkenaz ez dut iritzi betikorik, ez bainaiz, oraindik, erdira ere iritsi. Zoragarri doa. Kontrazalak dio Italiako iparrean zauritu Bigarren Mundu Gerran, eta bere memoria, hizkuntza eta identitatea galdu dituen soldadu baten historia dela. Gizakia eta hitzaren arteko harremanen metafora dela, eta identitateari eta hizkuntzari buruzkoa. Diego Maranik idatzia, *Nuova grammatica finlandese* tituluarekin (gaztelaniaz *Memoria callada*). Pena Euskadiko liburutegi sisteman, Bilbon, Ondarroan eta Hernanin beste inon ez dagoela, ez eta liburudendetan ere, eskatuz gero, erraz eskura daitekeen arren.

Hizkuntza eta memoria galdu dituen soldadu zauritua, zamarra batean jositako izen-abizen bat medio, finlandiarra dela erabakitzen du barku-ospitale militar batean lanean ari den Petri Friari mediku neurologoak. Finlandiarra hori ere, eta horregatixe hasten zaio, etsi eta hiltzen utzi ordez, hizkuntza berreskuratze ariketak egiten. Hitza hitzarekin, mutu, etorkizunaren zain. Soldaduak hizkuntza baten jabetzearen bizikizunak ditu. Honako hau adibidez: "Mozkortu eta abesten jarduten zuten soldadu alemaniar eta alkandora beltz artean, nire zerbezak ahalik eta gehien iraun zezan saiatzen nintzen, eta mozkorraldi hartako adiskide ezezagunekin ulertzen ez nituen abestiak kantatzen nituen. Lasaitu egiten ninduen nire ahotsa besteenarekin batzen sentitzeak, nire hitzak, haienen gainean, nire ahotik irteten eta benetan neureak balira legez bizitza hartzen, hain ondo imitatzen ikasi nituen soinu haien sakonean esan nahia ere beraietan balego bezala".

Ladilloa

Ezagutzen ditudan asko dakarzkiz gogora. Badut ezagun bat hileta elizkizunetara ikaragarri pozik joaten dena. Euskara jakiteak ikaragarriko enbidia ematen dio, baina ez daki tutik ere, hiletetan kantatzen diren ia guztiak



|||||||ramon etxezarreta|||||

|||Euskaraz idatzi dudalako ez didala ulertzen esaten didan zenbaiti "*pero si lo he escrito en tu idioma*" esaten diot

salbu. *Agur jesusen ama*, inkongruentzia liturgiko hori, *Eusko Gudariak* baino beroago eta *Aita Gurea* bere emazte UGTkoak *Internazionala* baino sutsuago kantatzen ditu. Ezin ahaztu Esperanza Aguirrereren "Inazio gure patro handi" hura... Bitxia gertatuko litzaike *San Inazioaren Martxaren* hitzak dakizkiten Azpetiko herritarren batanaz beste-koak zer ulertzen duten esplikatu baligute. Eta kantujirakoek, eta neuk, eta abar ugari batek.

Beti etortzen zait burura donostiar guztiz erdaldun batek, artikulu batean, nola aurpegi-ratu zion, nire harridurarako, ez abertzale euskaldun bati, harena zela berak bere hizkuntzan [sic] idatzi ezin izanaren errua eta ardura. Geroztik euskaraz idatzi dudalako ez didala ulertzen esaten didan zenbaiti "*pero si lo he escrito en tu idioma*" esaten diot. Batzuek sinestu egiten didate eta kantuan ere jarraitzen dute.*



ESKATU ETA JASO ZUREA AZPEITIAN!



*Arakastoa landarria
Beltza piparrak
Olivarok
Zaraurak
Arakok
Ogiak
Dak
Lurrak
Tutak
Arakastok
Dakak
Tuntak
Beltza piparrak*

ZURIA EDO BELTZA

LEKUAK

Ikasberri Ikastola
Orkatz
Karmelo Etxegarai
Urola Ikastola
Baigera
Elkargunea
Sanagustin kulturgunea



*Arakastoa landarria
Beltza piparrak
Olivarok
Zaraurak
Arakok
Ogiak
Dak
Lurrak
Kulturak
Oliak
Nahasturak
Beltza piparrak
Ara-merkatok*

eskatu saskiak: soberria bilerak azaraberrin 14ra arte - jusezaberrin %25 nafarroa hegoaldeko eskola ginzatara bideratuko da

Oholtzan begiak iltzatuta

XXXV. Euskal Antzerki Topaketak martxan dira. Soreasu antzokian, Gaztetxean edota udaletxeko ganbaran, azaroan euskarazko antzezlanak nagusi izango dira aurten ere Azpeitian. 📍 Mailo Oiarzabal

Azaroarekin batera, hutsik egin gabe iritsi dira aurten ere Euskal Antzerki Topaketak Azpeitira. Hilaren 1ean ireki zen 2017rako prestatu duten egitaraua, Ehazek antolatutako V. Antzerki Eskolen Egunarekin. 3tik 26ra, berriz, hamalau ikuskizunenez gozatzeko aukera izango da.

Emanaldi gehienak asteburutan eta Soreasu antzokian izango dira, baina astegunetan ere hartuko du antzerkiak Azpeitia. Hilaren 9an, osteguna, *Erbeste edo saihets baten aldarrikapenak* lana emango du Anodino Teatrok udaletxeko ganbaran. Eta aurten ere izango dira emanaldiak Gaztetxean, antzerki alternatiboaren ziklo bereziaren barruan. Hilaren 23an, *Hozkailua* emango du Huts Teatroak, eta hilaren 24an *Bihotz salataria* Atx Teatroak. Bi egunetan, luntx begetarianoa dastatzeko aukera izango da, antzerkiaren aurretik.

Metrokoadrokaren eta Pez Limboren *Miss Karaoke*, Tartean Teatroyen *Ez dok hiru*, Txaloren *Mendi tontorean* eta *Etxeko saltsak*, Compagnie Rouge Elearen *Hau da nire ametsen kolorea*, Theatre des Chimeresen *Azken itzulia*, Pantzart Teatroaren *Plisti-plasta*, Jon Ander Alonsoren *Heriotza bikoitza (Doble Malta)*, Eromen Produzioak *Hysteria*, Teatro Paraisoren *Lunaticus Circus* eta

||| DATUAK |||||

||| Zer. XXXV. Euskal Antzerki Topaketak. ||| Eguna. Azaroaren 1etik 26ra.

||| Tokiak. Soreasu antzokian, Gaztetxean eta udaletxeko ganbaran izango dira emanaldiak.

||| Antolatzailea. Azpeitiko Udala.

Aukeran dantza konpainiaren *Mauriziak* osatzen dute Topaketan aurtengo uzta.

Interneten ere sarrerak

Aurten ere sarrerak aurrez erosteko aukera izango da *azpeitia.eus* webgunean. Antzerki egunetan, orubete lehenago irekiko dute leihatila Soreasun. Helduek 5 euro eta 14 urte bitartekoek 3 euro ordaindu beharko dute sarrera.*

||| ESKOLA ANTZERKIA |||||

8 ikastetxetako taldeek aurkeztuko dituzte beren lanak hilaren 13tik 16ra Soreasu antzokian, eskola antzerkiari aurten ere eskainiko zaion tartean. Ikusleak ere ikasleak izango dira.*



Ander Lipus eta Patricia Urrutia, 'Hozkailua' antzezlanean. ||| Huts Teatroa

||| BESTERIK |||||

1 Lynn Hillen solasaldia

AEBetako eskalatzaile ezaguna Azpeitian izango da, Euskal Herrian emango duen hitzaldi bakarrean. Sarrerak aurrez salgai daude, Sanagustinen eta Kulturaz-en webgunean.

||| Eguna. Azaroaren 9an.

||| Ordua. 21:30 ||| Tokia.

Soreasu antzokia.

||| Antolatzaileak. Kulturaz Kooperatiba eta Lagun Onak MB.

2 Bullyinga hizpide

'Bullyingaren mugak gaintitzen' jardunaldiak egingo dituzte herrian eta izen-ematea irekita dago.

||| Eguna. Azaroaren 24an.

||| Ordua. Goiz eta arratsaldez

||| Tokia. Sanagustin kulturgunea. ||| Antolatzaileak. UEU eta Azpeitiko Udala.

3 Festak Lasan eta Errebalean

Samartinak ospatuko dituzte aurten ere lasaotarrek eta Bustintzuriko Errebalekoek.

||| Eguna. Azaroaren 10etik 12ra.

||| Tokia. Lasan eta Bustintzuriko Errebalean.*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK*

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Umut.: 943 81 57 81

Zure autoak behar duen edozeintarako!

AIZPURU AUTOAK

PREMIUM SERBIZIOA

Tel: 943 81 33 89 aizpuru@aizpuru.net
Fax: 943 81 33 81 www.aizpuru.net Armada 17, 20730 AZPEITIA

Kepa Urbieta: "Lanean jarraituko dugu Annapurna II 1986 proiektua osatzeko behar ditugun 24.500 euroak lortzeko"

Annapurna II 1986 proiektuaren sustatzaileek bidararen ardia egin dute: 10.000 euro pasako lortu dituzte. Aurreneko helburua beteaz, beste 40 egun dituzte aurretik 24.500 euroa lortzeko. Abendura bitartean, kaisan zein sarean lanean jarraituko dute Paradisu Zinema zineklubeko eta Kulturaz kooperatibako aldeek. Tartean da Kepa Urbieta (Azpeitia, 1981), eta edozein ekarpen onargarria izango dela adierazi du.

Aurreneko erronka bete duzue, 10.000 eurora iratea. Eta orain, zer?

Bai, hala da. Lortu dugu jarritako lehen helburua, eta gustura gaude, baina oraindik bidea ez da amaitu. Proiektua osorik egin ahal izateko, hau da, 1986an grabatutako dokumentala digitalizatzea eta bigarren bat egiteko, 24.500 euro behar ditugu gutxi gorabehera. Oraindik bidararen ardia egin dugula esan daiteke.

Zer balorazio egiten duzue orain artekoaz?

Pozik gaude, eta oraindik 40 egun ditugu aurretik lanean jarraitzeko. Baina ogia da aurreneko etapa ez dela guk nahi bezala joan. Kanpaina abiatu geroztik, sostengu ekonomiko lortzeko bi bide zabaldu genituen. Alde baterik, matchfundings. Hori Gotoo plataformak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Meta mikro mezenasgo proiektuaren berrun abiatu zuten

finantzaketa kolektiboa da. Hori esker, internetez bidez jasotzen dugu diru-laguntza. Beste aldetik, diru lortzeko besteako ekintza batzuk egiten hasi ginen gure kabuz. Bigarren modu honetan lortzeko diru finantzaketa kolektiboaren bigarren fasean jarri nahi genituen, berin 10.000 euroak lortu ostean, alegia. Baina 4.000-5.000 euro lortu geroztik, bazterdun kopurua ez zuela gora egingo. Onduan, proiektuari buztada emate aldera, bigarren fasean jarri behar genuen diru sarreratu geroztik. Pibonaka ekarpenak jasotzen jarraitu genuen, eta azkenean irabaz ginen 10.000 euroetara. Orain, lanean jarraituko dugu Annapurna II 1986 proiektua osatzeko behar ditugun 24.500 euroak lortzeko. Domusak eta Kulturaz kooperatibak ekarpenak egin dituzte, eta esku eskortzen ditugu oraindik ere emendako babes guztia.

Zein urrats emango dituzue aurrerantz?

Abendura arteko opera dugu helburua betetzeko, eta ez gara geldirik egongo. Jarraituko dugu postuak jartzen eta jendearekin hitz egiten, kusten duguna da jendearen eskura eta herikarengandik gertu egon behar gara, diru ekarpena internet bidez egin nahi ez dutenek ere laguntzeko aukera izan dezaten. Guk azpimarratu nahi duguna da edozein



ekarpen, izan bakia edo handia, ona dela guretzat, eta esku zabalik hartuko dugula.

Aukerarik ba al duzue gailura igitzeko?

Bai, aukerak ditugula uste dugu, sinesten dugu, behintzat. Meta proiektuan hasi ginen hogei proiektuetatik bost aldera geratu dira, eta diru polita handi bat galditu da hor. Beraz, aukera emetarik ditugu gehiago kopurua lortzeko, Hometatako, hantaman 7.000 euro behar ditugu gutxi gorabehera. Kontatu da Gipuzkoako Foru

Aldundiak diru polita bat jartzen duela Meta proiektuari aurkeztzen diren egitasmoentzat. Hau da, jendeak ekarpena egin ahalik, beste hometarantz diru jartzen da hark. Bigarren fase honetarako rako diru-polita bete samar geratu da eta eta hustu arte edo 40 egunak pasatu arte egingo du diru ekarpena. Foru Aldundiak, Hometatik, del egin nahi ditugu herriarekin beren aldea jar dezalean, samar banta, pausoz pauso, Annapurna II 1986 proiektua tontorera iritsi dadin.

Roots in the Air Tour

ISEO & DODOSOUND

with The Mousehunters

AZPEITIA

Sanagustin kulturgunea

11/18 LARUNBATA

10€ 23.00 12€

Berzosa, Kulturaz, HITZA, Sanagustin Kulturgunea

DELOREAN

AZPEITIA

Sanagustin kulturgunea


ABENDUAK 16

LARUNBATA 23:00

Sareak: 15018 Sanagustin kulturgunen eta goetallorak.eus

Kulturaz, HITZA, Sanagustin Kulturgunea

HITZ GEZIDUNAK

	Izena	Nahi	Kolore mota	Bardia handia	Bokal errepi-katua
	Podologian aditua	Espainiako mendilerro	Mundutar	Zain egon	
	Deitura				
	Arabako herri bateko				
Galgak	Oroitzaren penak				Arabako udalerrri bateko
Ilobak	Gatz kutsakorra				
			Itsas hegaztia		
			Landareen izerdi		
Bizkaiko udalerrria				... gabe, eten gabe	
Arau				Toles	
		Dei eginez			Bokala
		Euskal sindikatua			Garai
Ledeako				Ote ar	
Ubide				Indioa	
			Lituramen-du		
			Boroa		
Kanoi motzeko fusil arina					Txakur, euskara zaharrean



Egilea:
Luma

* Preso azpeitiarra

SUDOKUA

2	9			6				
4		8	1					
	5		7		9			
7				2		9		
		9				8		
		3		5				6
			2		5		1	
					7	2		3
				9			7	8




Il Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Azaroak 20 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

1 EZTARRIAN DU

2 MITIKOA IZAN DA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

R	O	●	A	N	I	B	A	R	A	K	●
A	R	U	L	L	●	L	A	N	A	K	●
R	A	T	O	●	R	A	E	D	E	●	●
A	●	A	K	A	E	D	●	E	G	E	L
I	A	I	●	O	G	A	N	R	A	E	●
A	I	O	A	I	K	A	●	A	B	A	●
●	K	A	I	R	O	M	O	M	E	●	●
A	L	A	R	O	U	G	E	S	E	●	●
A	O	G	O	L	O	G	O	P	O	●	●
●	G	●	H	●	G	●	J	●	●	●	●

SUDOKUA

8	7	5	6	9	6	2	7	9	1	4	2
3	6	3	1	7	2	6	5	4	1	7	2
9	1	6	4	1	9	5	8	2	7	3	6
6	3	7	2	8	5	4	7	2	6	8	1
8	1	3	9	5	4	7	2	6	7	1	8
5	2	9	6	7	1	8	3	4	7	2	6
7	6	4	8	2	3	9	5	1	7	6	4
3	5	6	7	4	9	1	8	2	7	6	4
4	7	8	1	3	2	6	9	5	4	7	8
2	9	1	5	6	8	3	4	7	2	9	1

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Errepika 2 Errebelatu

|||UZTARRIAREN URRIKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Jose Inazio Uranga Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 198. lehiaketaren irabazlea. Kutxillourdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa

Eñaut: 658 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

||| ELKARRIZKETA ||||| Julen Badiola 'Maltzeta' trikitilaria

“Neure kabuz ikasi dut soinua eta panderoa jotzen, belarriz”

||| Hirugarren Trikigiro jaialdia egin zuten urriaren 20an, eta han lehen aldiz jo zuen Julen Badiola *Maltzeta*k (Azpeitia, 1999). Urrutikoa ez den arren, ez du familiakoa Juan Garate *Maltzeta* zena.

Etxean, ikasi duzu panderoa eta soinua jotzen. Nola?

Afizioa dugu, eta jardun eta jardun... Duela pare bat urte hasi nintzen panderoa jotzen, eta soinua ikasten duela urte eta erdi inguru. Momentuz, panderoarekin hobeto moldatzen naiz. Bere garaian solfeo-a eta ikasi nuen, baina ja ez naiz partiturak irakurtzeko gai, eta belarriz ikasi dut.

Kanta bat jarri eta hura jotzen saiatzen zara?

Hori da. Botoi bat probatu, eta "hau ez duk ba!", eta bestea probatu, eta "hauxe izango duk!".

Zenbat ordu aritzen zara?

Etxean, egunero pixka bat jotzen dut. Haizeak nondik jotzen didan, horren arabera.

Honezkeru etxeakoak aspertuko ziren pixka bat...

Bai, etxeakoak, etxepekoak eta denak.

Trikitia ikasten bazenuen,



Maltzeta panderoa jotzen. ||J.B.

soinua oparitu zizula esan zizun amamak.

Bai, eta hala da. Lagun baten soinua arekin hasi nintzen ikasten, eta amamak oparitu egin zidan gero. Ilusio ederra egin zion trikitia jotzen ikasi nuela ikusteak. Hura ere zalea da eta...

Bera al da zure jarraitzailerik handiena?

Agian, bai. Attitte ere jarraitzaile handia dut, baina amama ere bai.

Nondik datorkizu trikitirako afizioa?

Aitaren aldeko familatik. Attitte Maltzetakoa da, eta ondoko base-

rian, Maltzeta-Etxetxon, Maltzeta zena soinua jotzen aritzen zen beti. Amama dantzan ibiltzen zen, eta osaba dantzariak ere badituz. Beti saltsa horretan ibiltzen gara.

Trikitiaren transmisioan, zer garrantzia du Trikigirok?

Gazteek ez dute aukerarik izaten trikitia jotzera kalera ateratzeko, eta gazteek segitzen ez badute, alfer-alferrik izango da guztia. Horrelako egun bat antolatzen duzu, eta giroa, behintzat, ziurtatuta egoten da.*

||| Elkarrizketa osoa uztarrria.eus-en

||| EFEMERIDEAK |||||

1588

Antxieta zendu. Juan Antxieta irudigilea hil zen, Iruñean.

1711

Ardo zikina. Herriko tabernariak ardoa garbitasun txikiarekin ateratzen zutela-eta, fidelari agindu zioten auzia jartzeko haien aurka eta gestio guztiak aurrera eramateko.

2012

Biktima aitortza. Txiki eta Otaegi indarkeria politikoaren biktimak direla aitortu zuen Eusko Legebiltzarrak.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarrria Kultur Koordinakundea.*

||| BIDEOAK |||||



Sormen Gunearen aurreproiektua.*

KIMU BAT GARDEN

KIMU BAT 25 urte
Urrestila bidea. Azpeitia
943 15 00 85

Jogurta

Gure elikaduraren parte izan daitezkeen produktuak dira, beharrezkoak ez izan arren. Proteinak eta kaltzioa ematen dizkigute, eta mikrobioentzat medegarriak diren bakteriak dituzte. Gainera, gainerako esnekiekin alderatuta, laktosa kantitate txikiagoa dute, eta laktosa intolerantzia dutenek, esnea baino hobeto toleratzen dute.

Egia da jogurtak erostea odisea bat bihur daitekeela. Bistakoa da supermerkatuetako apalek eskaintza zabala dutela, eta elikadura industriak trikimailuak oso erabiltzen ditu gure aukeraketan eragiteko. Askotan, gehienetan ez esateagatik, marka ezagunena edo ontzi erakargarriena duena, osasungarriena dirudiena edo prezio erakargarriena daukana aukeratzten dugu. Dena den, kontuan izan behar dugu industriaren helburuak eta gureak oso desberdinak direla.

Beraz, aukeratzera, produktu on baten gaineko informazioa izatea da gakoa; zer osagai dituen begiratzera behar-beharrezkoa da. Jorguten kasuan, funtsezko osagaiak dira esne fresko pasteurizatua eta fermentu laktoak; gainerakoak jogurtaren apaingarriak dira.

Apaingarria nahi izanez gero, gehitu garaiko fruitaren bat. Ez ahaztu: urrutira joan gabe, bertan baditugu apaingarririk behar e z duten produktuak!*



aitziber aizpuru!!!

GEMA URKIZU lanerako arropa saltzailea



- 1. Lanerako, edo zer jantzita berdindu?**
Ez. Zenbat ordu pasatzen ditugu egunero lanean? Eguneko gehienak.
- 2. Arroparik onena?**
Zuretzat erosoena dena.
- 3. Modernotzen ari dira lanerako arropak?**

- Bai, markakoak ere badira.
- 4. Bezero ohikoenak?**
Ostalaritzakoak, osasun arlokoak, autonomoak...
 - 5. Gehien saltzen da...**
Segurtasun oinetakoak, galtzak eta kamisetak.
 - 6. Eta buzoak?**
Gero eta gutxiago.

- 7. Buzo garbiak, itxura onik ez...**
Ez, eta zuloren bat edo beste badu, hobea.
 - 8. Arropa plantxatzea beharrezkoa da?**
Oro har gutxi plantxatzen bada, lanerakoa gutxiago.
- Ihintza Elustondo**

EREGI
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA
golko kalea 5, 3A. tel: 943 06 06 88
azpeltia. eregi@eregi.net eregi.net

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIKAS
Jose de Arrese, 17 Tel. 943-810664 AZPEITIA
Iñaki Ondo, 28 Tel. 943-851445 AZKOITIA

IRENE ALTUNA
LOIACENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.irenealtuna.com

Alar
merceria
Loiolako izuzte Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

ERAZKINEN DIBULGATZAK
Aldizkariak, Dibulgo eta inkesta, 2000etan igandek. Gomendio eta proiekzioa, 11:15ean
Aldizkariak: Hekuntze sudeak
Informazio gehiago: Saniluz@erazkinen.com
943 157 124
943 157 124
www.erazkinen.com

uba
akuntzalaritza
Khartularitza
Hizketa
Kontabilitate
Gestio lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inmobiliarioa
Tel. 943 157 124 Fax: 943 157 124
Erreaneko kalea, 45 - 48900 AZKOITIA

KIRURI
JATEXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfn: 943 81 56 88
Faxa: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA
● **Marraskia eta eskulanak**
(haurrak) 17:30 - 19:00
● **Pintura** 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
● **Talia** 18:30 - 20:00
Jose Arrese kalea, 3
943 81 28 08
artediseinu@gmail.com
Matricula urte osoan zehar

Bihurrikeria, garesti

Gaizki egindakoak zigortzeko, kalabozoa dute herriko Udaltzaingoaren eraikinean. Bat baino gehiago da hura zapaldutakoa; badago zer kontatu. 📝👁️ Ihintza Elustondo

Jaio orduko esaten digute zer da goen ondo eta zer gaizki. *Hau* bai eta beste *hau* ez. Dena den, egin behar ez den hori erakargari egiten zaio hainbati. Zigortua izateko arriskuak tximeletak sortu ohi ditu sabelean. Kili-kili moduko zerbaite. Ondo daki hori zer den Iñaki Agirrezabalak (Matxinbenta, 1956). Garesti atera zitzaion 17 urte zituela egindako bihurrikeria.

Duela gutxi, etxeko trasteen artean aurkitu zuen 1973ko uztailaren 31ko data duen isuna, orduko alkate Silvestre Otamendik sinatua. “*Cometio usted actos de gamberrismo con otros amigos en el parque infantil*”, dago idatzita. Hau da, agiriaren arabera, egin behar ez zuen zerbaite egin zuen egun hartan.

Saninazioak ziren, eta Matxinbentatik Azpeitira etorri ziren beti elkarrekin ibili ohi ziren lau lagun. Diru gehiena autotxokeetan gastatu bazuten ere, tonbolarako ere gelditu zitzairen zerbaite, eta han gastatu zuten beste pixka bat. Han zer tokatuko, eta baloia! Azkoitiko ezagun batzuekin elkartu eta berehala antolatu zuten futbol partida: matxinbentarrak vs. azkoitia-rrak.

Frontoi Txiki ondoko parkera joan ziren, 23:30-00:00 aldera. Orduan, hesi batek inguratzen zuen parke hura, eta itxia zegoen, festak zirela eta. Gazteak izanik, berehala saltatu zuten langa. Eta hantxe hasi ziren zabuen artean futboleant. “Tarteka, baloia zuhaitz gainean katigatzen zitzaigun, eta burdinezko zabo-



Jose Anjel Aristi udaltzainburua. III.E.

rrontzi bat hartu eta hura zuhaitzera jaurtita berreskuratzen genuen baloia”.

Hala ari zirela, ohartzera, bizpahiru udaltzain sartu ziren parkera. “Ez dakit besteak ni baino azkarrago mugitu ziren edo despistatu egin nintzen, baina bakarrik gelditu nintzen”, azaldu du Agirrezabalak. Orduan, korrika hasi ziren udaltzain bat eta bera, banku baten inguruan bueltaka, elkarren atzetik. “Ez ninduen harrapatuko gau guztian ere, baina ‘gelditzen ez bahaiaz, hartuko dituk ederrak’ esan zidan, eta gelditu egin nintzen”. Udaltzainak gazte-oxoari esan zion aurrena berak pasatzeko parkea inguratzen zuen hesia, eta horretan ari zela, bidea libre ikusi eta ospa egin zuen matxinbentarrak.

Landeta aldera joan zen, eta han egon zen pixka batean, norbait agertzeko zain. Azkenean, 01:00a inguruan azaldu ziren bere lagunak, Vespa batean. Haike ere bazuten zer kontatu: “Udaltzainekin topo egin zuten. Nik alde egin nuenez, ez zen gelditu nire izen-abizenik inon gordeta, eta horiexek behar omen zituzten derrigor. Azkenean, lagun batek eman egin zizkien”.

Igande gauean, abisua iritsi zen Matxinbentara: Azpeitiko udaltzainen bulegora joateko. “Joan nintzen, eta esan zidaten: ‘Gau guztia kalabozoan pasatu beharko duk!’”. Entzundakoa entzunda, horretarako prestatzen hasi zen Agirrezabalak: “Banku luzexka bat zegoen kalabozoan, eta bi-hiru txaketa zahar bilatu nituen buru aldean ipintzeko”. Hantxe etzanda zegoela, ordu eta erdi inguru igaro zenean, atea zabaldu zuen udaltzain batek. “Zirrikituraren batetik ikusi ninduen, eta ‘honek lo hartuko dik, gainera’, pentsatuko zuen. Sekulako errietan entzun nuen, burla egin niola eta”.

Galantak entzunda baina aske utzi zuten mutikoa. Hori bai, ez zitzaion merke atera bihurrikeria: 250 pezetako isuna jarri zioten. “Orduan, 100 pezetan afaldu egiten zenuen, eta niri bi afari izorratu zizkidaten”, dio umoretsu. Duela 44 urte gertatu zen hori guztia, eta sasoi hartako anekdota gehiago ere baditu buruan: balkoi batetik oheko estalki bat lapurtu zutenekoa, etxe batetik lorontziak hartu eta beste batean jarri zituztenekoa... “Ez genuen



Iñaki Agirrezabala, Frontoi Txiki ondoko parkean, isuna eskuetan duela. |||Ihintza Elustondo

uste ezer gaizki egiten genuenik, baina gaizki eginda egongo ez ziren ba!". Halakotxeak ziren Matxinbentako lau lagunak: "Beti zerbait ezberdina egin behar izaten genuen!"

Kalabozoaren erabilera, beheraka

Udaltzainen eraikin zaharreko kalabozoa zen Agirrezabalak ezagutu zuena, eta azpeitiar bat baino gehiago igaro zen handik, arrazoiz ezberdinak tarteko. Dena den, 1980ko hamarkadaren amaieran berritu egin zuten erakina, eta bi kalabozo txiki egin zituzten bertan. Asko erabiltzen ez zirela ikusita, ordea, horietako bat aldagela bezala erabiltzen hasi ziren, eta bestea da egun mantentzen dena.

Jose Anjel Aristi (Urrestilla, 1959) udaltzain buruaren arabera, lehen kalabozotik jende asko pasatzen zen arren, egun, ia ez da erabili ere egiten. "Normalean, bakarren bat atxilo-

tzen badugu, ertzainekin jartzen gara harremanetan: guk eramaten dugu atxilotua beren egoitzara edo beraiek etortzen dira bila. Gerta daiteke justu une horretan guk ezin dugula joan eta beraiek ezin dutela etorri, eta kasu horietan, ordea, atxilotuak hemen edukitzen genituen epailearen aurretik pasatu arte, eta jendeak gau bat edo bi ematen zituen bertan".

Ondo gogoan ditu Aristik aspaldi gertatutakoak: "Baziren batzuk hona askotan etortzen zirenak. Batek alde ere egin zuen, sabaia zulatuta. Garai hartan sabaia egurarekin edo karearekin egindakoa izango zen, eta zulatu eta Enparan kaleko portalera irten zen". Azpeitiarra zen, gainera, eta ez zuten harrapatu.

Halere, udaltzain buruak nabarmendu duenez, "herri lasaia" da Azpeitia. Gutxitan atxilo-



Agirrezabalari 1973an jarri zioten isuna. |||I.A.

tzen dute jendea, eta ez da arazo askorik izaten. "Bakarren bat lapurretan harrapatu dugulako edo borrokaren bat izan delako atxilotu izan dugu, baina oso kasu bakanak izan dira. Emakumeen aurkako erasoak izan dira azken aldian gehien tokatu zaizkigunak".

Gauza bat, behintzat argi dago: gero eta jende gutxiagok zapaltzen du kalabozoa herrian. Atxiloketen zergatiak entzunda, ordea, norberak atera ditzala ondorioak.*

Xabier magoak
Pinturak eta Parket Laminatuak
 Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

AZKOITIA
 ERLOJU KONPONKETAK
 Arana, 5 AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

Ekain Lamaldak
 ALBATARI KLINIKA
 Euzkadi Herria, 34 20730 AZPEITIA Tel: 943 15 95 40
 Tel: 943 15 16 40

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	02 60 69
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01

Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (AZAROA)

1-6-11-12-17-22-29
Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

4-5-10-16-23-30
Eizagirre (Azpeitia).
943 81 12 74

2-8-15-20-25-26
Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

7-13-18-19-24-27
Aranburu (Azpeitia).
943 81 19 49

3-9-14-21-28
Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

GAUEZ, URTE OSOAN
Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Azaroaren 29an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, ambulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



HERRITARREN ESKURA.

Babesa arropa dendan, Itzira tabernan, Xiriako kafetegian eta Jose Artetxeko tabako dendan daude eskuragarri poltsa konpostagarriak, komertzio bakoitzaren arreta-ordutegian, doan.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07


||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

GARBIÑE LARREA

Naturopata

“Jakintsua izatea oso zaila da, mundu oso zabala da eta”

Urnietako amonak irakatsi zion ondarea “preziatua” bihurtu zaio Garbiñe Larreari. Sendabelarren mundu zabalean beti dagoela zer ikasi dio  Ainitze Agirrezabala

Nolatan zara naturopata?

Aitaren aldeko amonak bikiak erditu ondoren gaitz larri bat izan zuen; burua hartu zion herpesak, eta hiltzat eman zuten. Urnietako petrikilo batek emandako erremedioari esker, ordea, aurrera atera zen. Geroztik, amonak asko ikasi zuen petrikiloarekin, eta berareztat oso garrantzitsua zen ondarea irakatsi zidan. **Naturopata izateko zer bide egin duzu?** Jendeak zer formazio dudan galdetzen didanean, lotsaz esan ohi dut zuzenbidean lizentziaduna naizela. Bilbon sendabelarren inguruko hainbat ikastaro egin ditut zortzi urtez, eta egun nire ogibidea naturopatia da. Sendabelar ikastaroak eta kontsultak eskaintzen ditut, baina mundu zabala da oso, eta asko ikasi arren, jakintsua izatea oso zaila da.

Aurreiritzi asko al dago?

Bai. Jendeak uste du belarrak bide bazterrean daudelako eta ugariak direlako ez direla onak. Horrez gain, oso ohikoa da guri petrikilo edo sorgin deitzea, eta izen horiek ez zaizkit gustatzen, estigma asko dituzte eta. Bestalde, eskuekin egiten den artisau lan gutzia gutxietsita dago, eta hau ere bai.

Zer belar da izarra?

Izarra ez dakit, baina debaldekoak dira eta inguruan eskura ditugu menta, erle-belarra, kamomila, erromeroa, asuna... Azeri buztana ere ugaria da gure bazterretan, eta udaberri guztian iluntzero infusio bat hartuko bagenu, jendearen laurdena joango litzateke anbulatortiora, arazgarria baita. Belar bakarra aukeratu beharko banu, berriz, ezpata-plantaina esango nuke. Jendeak ez du batere estimatzen, baina nik erremedio guztiei jartzen diet.

Zer produktu egiten dituzu?

Dibertsifikatzen ari naiz. Zaurientzat, kolpeetarako eta erredurentzat egokia den sanjuan ukendua urtero egiten dut, baita antiinflamatorioa eta ukendu baltsamikoa ere. Aurpegi-rako eta gorputzerako kremak eta hortzetako pasta ere ekoizten ditut.

Saldu egiten dituzu?

Ezin ditut saldu, bestela, legeari dagokionez, intrusismoa ariko nintzateke egiten. Horretarako lizentziak atera eta homologatu egin beharko nituzke, eta, noski, laborategia beharko nuke. Ez dut bide hori itxi, baina, momentuz, oparitu edo trukatu egiten ditut.✘



1

1. Garbiñe Larrea mendian, sendabelarrak biltzen. 2/3. Sendabelar ikastaroa, Zestoako Kerala ongizate txokoan. 4. Ukendu sorta.



2



3



3

Puntista

Kurtsua ez zen hasi zaharra ere, baina orduantxe zuela garaia eta joan zen irakasle hura Amerikara. Estatu Batuetara. Floridara. Pilotari ari zitzaion han anaia. Puntista. Eta joan zen delako irakasle gure hori, zuzendari gureari baimena eskatuta. Eta hamabost egun egin zituen ez dakit, baina hamarren bat egingo zituen, ozeanoa zeharkatzea ez da-eta txori-kaka, eta hainbesteko bidaia egiteak merezi ere ez du Amerikan egun gutxiago ematekotan.

Hasi naiz, baina ezin bidaia hartaz gauza askorik esan nik, hark esandakoak besterik. Nonbait, heldu zen Florida parte hartara, hartu zuen anaiak eta ibili zituzten hango bazterrak, asko edo gutxi ez dakit, baina ibili ziztuztela, behintzat. Eta hango tamaina handiak. Distantziak, handiak. Autoak, handiak. Kaminoak, handiak. Eta ez dakizut hori baino askoz gehiago, hango tamaina handia kontatu zidala besterik ez zait gogoan gelditu. Eta pilotari zuela anaia han, puntista. Eta anaia Amerikan puntista izatea ez zegoen guztion esku. Ez nuen beste inor ezagutzen.

Han egin zuen bizia gure lagunaren anaia pilotariak. Etorri zen arte. Orduan, hemen egin zuen harrezkeroko bizimodua. Urrestillan ikusi nuen estreinakoz, tabernako lanean bera, endredoren batean ni han. Orduantxe elkar agurtu genuen lehenbiziko aldiz. Hi haiz, hortaz. Hi haiz, beraz. Eta hurrena, Sanjuandegin, zaharretan, tabernan, lanean orduan ere pilotari izandakoa, barraren honunzko aldean ni, jateko lanean. Gaizkitxe. Bizian ikusi nuen bigarren aldia.

Azkeneko aldian ez nuen ikusi, baina leitu egin nuen hartaz liburu batean. Ez daukat ahaztekoa. Txikiz eta Otaegiz ari zen, ari da liburua. Francok sinatu zituen azken bost fusilatze kriminal haiek. "Irailaren 27ko goizean, mutilkote atletiko bat harutz eta honutz urduri Barajaseko aireportuko korridore nagusian. Handik ordubetera Amerikako Estatu Batuetara joango zen. Hango pilotaleku ba-




|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Urrestillan ikusi nuen estreinakoz, tabernako lanean bera, endredoren batean ni han

tean jokatzeko zesta punta kontratua zerman poltsikoan. Ziriako Gurrutxaga, Nuarbe-ko mutilkote hura, Anjel Otaegiren adiskide-mina zen. Sufritzen ari zen, pauso handian zebilera, egunkariak erosten eta batera eta bestera begira, galdezka bezala, bere lagunaren patua zein izan zen non edo non antzeman nahian. Eta abioira igotzen ari zela, handik hirurehun kilometrotara, Burgoseko presondegiko patio batean, laguna fusilatu zioten".

Pilotari estimagarria

Orain, Ziriako hila dela jakin dut, hango puntan pilotari lagun izan zuen beste puntista batek *feizbuen* minez eskribitu duenez. Estimagarria pilotari orain hildako hura. Anaia bezain estimagarria zitzaidan. Harengan bere anaia bera ikusten nuelako, seguru. Kurtsoa hasi eta egunetara gu Loiolako ikastolan utzi eta Floridaraino joan zen lankidea. Anaia ikustera joandakoa Amerikara.✘





IRUDHITZEN

LEHIAKETA, MARTXAN



informazio guztia: uztarria.eus webgunean

ORDUTEGIA

asteleheneretik ostegunera
08:15-13:00
17:00-20:00
ostirala eta larunbata
08:15-13:00

GAZTA

Ardi gazta aukera zabala
Behi gazta



680 772 037



- Gaztainak
- Bertako kiwia
- Inguruko baserrietako barazki frexkoak
- Kontserba aukera zabala
- Izoztutako arrainak eta krocketak

40. URTEURRENA OSPATZEKO PREZIO BEREZIAK

Etorri eta galdetuz



LASERRA:

- Ezpain gaina 15€
- Kokotsa 15€
- Besapeak 25€
- Iztartea 25€
- Hanka erdiak + iztarteak 65€
- Hanka osoak + iztarteak 95€
- Hanka erdiak 40€
- Hanka osoak 75€
- Iztarteak + besapeak 50€
- Bularra + sabela 50€
- Bularra 30€
- Bizkarra 45€



PRESTA ZAITEZ UDAZKEN HONETAN
ZURE AZALARENTZAT DITUGUN
BERRIKUNTZAK SENTITZEKO